

hirulka

Gabonetako berezia • 154. zenbakia

2019ko abenduaren 12a



Bideari ekiteko prest



Getxo
bizi ezazu



Getxo

*Zuretzat gabonetan
Regala Getxo esta Navidad*

#GetxonDaukazu



Enpresa-bilatzailea
Buscador de empresas

GetxonDaukazu.getxo.eus

EnGetxoLoTienes.getxo.eus



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Iker Rincon Moreno, Unai Brea

Argazkiak: Hodei Torres

Diseinua: Artefakto

Kudeaketa: Ziortza Merino

Kolaboratzaileak: Kerman Santiago,

Iratxe Ormatza eta Alex Orbe

Filmazioa eta Inprimategia: COMECO

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru
Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Aurkibidea

ERRETRATUA José Luis López Moure, gaztaina-saltzailea	4
OPARI BAT DUGU ZUENTZAT...	5
MUNDUKATUAK Zelan ospatzen dituzte Gabonak beste herrialde batzuetan?	6-7
ERREPORTAJEA Piroteknia erabiltzearen argi-ilunak	8-11
IPUINA Txipi eta lurtarrak	12-13
UMEENTZAKO OPARI-PROPOSAMENAK	14-15
AGENDA Herriz herriko ekitaldiak	16-17
NAGUSIENTZAKO OPARI-PROPOSAMENAK	18-21
HIRUKIRA OLGETAN Umeentzako denbora-pasak	22-25
OLENTZERORI ETA MARI DOMINGIRI ESKUTITZA	27-28
HITZA EMANDA 2019ari agurra: hamabi albiste, bertsotan emanak	29-41
ELKARRIZKETA Joseba Santxo eta Naroa Torralba (ALBEko kideak)	42
GATZ-OZPINETAN Gabonetarako menu-proposamena	43
GASTRONOMIA-GIDA Gabonetako proposamenak	44-47
ZEURE BURUARENTZAKO OPARI-PROPOSAMENAK	48-49
BEZEROEI ESKER ONAK	50-51
HIRUKALAGUNENTZAKO ZOZKETAK	52-53
HIRUKAZALEEI AGURRA: AURRERA GOAZ	54

VRONDO
ESTANKOA

Zorionak
eta urte berri on!

Sabino Arana 67, Leioa ☎ 944 649 233



José Luis López Moure Gaztaina-saltzailea

«Euria egonda ere, ezin hutsik egin egunero etortzen direnei»

Gazte-gaztetan hasi zen gurasoen negozioan laguntzen José Luis López Moure (Bilbo, 1955), eta hortxe segitzen du, ia 40 urte igaro ondoren, neguan gaztaina beroak saltzen, hutsik egin barik hurbiltzen zaizkion bezero fidelei.

TESTUA: KERMÁN SANTIAGO ALKORTA ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

Astelehenetik domekara, arrastiro, lau hilabetez. «Neguko egunen batean nire falta sumatzen baduzu, zerbait txarra pasa zaidanaren seinale», esan digu Lópezek. Hemeretzi urte daroatza Algortako Telletxe plazan gaztainak saltzen, eta saltokian bertan elkartu gara beragaz. Segituan erreko dituen fruituei ebaketa txikia egiten dabil, begirada aiztotik kendu ezinik. «Arratsaldeko hiruretan heltzen naiz egunero, ikatza lapikoan jartzen dut, eta irekiera fina egiten diet gaztainei, suan leher ez daitezen», dio. 2000. urtean Algortan hasi baino lehen, hogeitatu urte eman zituen Areetan, familiaren negozioari eutsiz.

«Gurasoekin hasi nintzen 70eko hamarkadan; neguan gaztainak saltzen genituen, eta udan izozkiak», esan digu. Batxilergoko ikasketak burutu ondoren, aita-amen negozioan lagundu ez ezik, kamioilari ere hasi zen López. Gaur egun, ogibide biak uztartzen ditu: «Gehiago irabazten dut kamioilari modura, baina argi daukat erretiroa hartu arte gaztainak saltzen ere jarraituko dudala».

Fruituari mozketak egiten jarraitzen du, burumakur, egunero urritik otsailera betetzen duen errutinari men eginez. Argi du bere lanbidearen alde onak eta txarrak zeintzuk diren: «Euria kalamidadea da niretzat. Berdin dit beroak, baina euriarekin ez dut tutik ere saltzen. Bestalde, gehien baloratzen dudana bezeroekin dudana tratua da. Badira batzuk hemeretzi urtez ia egunero etorri direnak. Horrexegatik ezin dut egun euritsuetan hutsik egin, egunero etortzen direnentzat egon behar dut nire saltokian».

Adinekoak, helduak, gazteak, umeak... Askotarikoak hurreratzen dira Lópezengana, arrasti hotz eta lehorretan batez ere; eskuak epeldu ez ezik, sabela berotu eta afaltzeko itxaronaldia laburragoa egite aldera. «Esango nuke umeen % 95i gaztainak gustatzen zaizkiela, harritu egiten nau horrek».

Kasik mende erdiz produktu beragaz lan egiten dabilena ondo baino hobeto moldatzen da bere arloan esperientziadun lorezain bat loreakaz, irakasle bat ikasleakaz edo mediku bat gaixoakaz bezala. Gakoa produktua ondo aukeratzean dagoela dio gaztaina-saltzaileak: «Galiziako fruitu onenak lortzen ditut nik, Ourense aldekoak. Turkian eta Portugalen ere, besteak beste, eskatu ditut noizbait. Gaztaina ona hautatuz gero, zuritzeko erraza eta zaporez gozoa alegia, lana egin da dago». Gabonen atarian, eta Lópezek maitasunez prestatutako gaztaina erreak eskuan, gogoz kanta dezagun: *Txipli txapla pun, Gabongaua pozik igaro daigun.* ◀

Opari bat dugu zuentzat...

Abendua hasteagaz batera, hilabeteak ekarriko digun erosketa-olderako lehenengo entrenamendua egingo zenuten askok Durangoko Azokan. Eta badakizue, behin hasita, poltsiko-hustuketak ez du etenik, poltsikoa hutsik egon arte behintzat. Baina tira, ez dezagun hainbesteko zorrotasunez jardun. Gabonen hipokrisiaz eta gehiegizko kontsumismoaz berba egiteko garaiak datoz, Gabonez gozatzen eta ohi baino gehiago kontsumitzen dugun bitartean. Guk, geure aldetik, gauza bi horiek ahalik eta fundamenturik handienagaz egiteko gida eskainiko dizugu, Xabier Letek esango lukeenez Fidel Castro izateko ez baikinen jaio. Sasoi honetan urtero egiten dugun bezala, Uribe Kostako herri eta auzoetan izango diren ekitaldi berezien agenda erakutsiko dizuegu, aparteko garrantzia emanez Olentzero eta Mari Domingiri. Eta haiei zer eskatu asmatu ezinik zabilatzatenontzat, askotariko komertzioen gida ere badakargu: umeentzako zein helduentzako eta, zergatik ez, zeure buruarentzako opari-proposamen ugari topatuko duzu bertan. Baita gastronomia-arloko gomendio batzuk ere, jan-edanak garaiotan are garrantzi handiagoa hartzen du eta. Kasu denetan, gure inguruko saltoki txikiei oihartzuna ematea da helburua. Kontsumismoa kontsumismoa da, baina horren barruan ere gauzak egiteko hainbat modu daude.

Gogoratu, azkenik, norberaren gozamenak ez lukeela besteen sufrikarioa ekarri behar. Ildo horretan, urte-amaieran ohikoa izaten den pirotekniaren erabilerak hainbati eragiten dien kalteez jardun dugu zenbaki berezi honetako erreportaje nagusian; gizakion artean, ume autistak dira suziri eta txapliguen neurrigabeko zarataren ondorioak gehien jasaten dituztenak. Azpimarratzekoa da ere animaliei burrunbak eragiten dien aztoramena; guk, oraingoan, egoera horri aurre egiteko etxeko maskotak prestatzeko moduez berba egin dugu batik bat. ◀



Hiruka Kooperatiba Elkartearen Ez Ohiko BATZAR NAGUSIA-Deialdia

DATA: 2019ko abenduaren 18an

LEKUA: Algortako Azebarri Kultur Elkartea
(Euskal Herria kalea,14)

ORDUA: 18:00etan, lehen deialdia
18:30ean, bigarren deialdia

Gai-zerrenda

1. Batzarreko akta sinatuko duten bazkideen hautaketa.
2. 2019ko laburpena.
3. 2020. urteko planteamendua.
4. Bateratutako bazkideen ekarpenak.

hiruka
prentsa euskaraz, prentsa euskaraz!

Urte berriari ondo-etorria, mundu

Leila Galeano | Paraguai



**«Koko-lorea
apaingarri tipikoa
da Gabonetan»**

Paraguaiko biztanleriaren gehiengoa katolikoa dela dio Leila Galeanok, «hori dela eta, ia denok ospatzen ditugu Gabonak». Asuncion hiriburutik gertukoa da Galeano, eta bertan bizi direnek jaiotzak osatzen dituzte etxe-ko atarian, lorategian; «askotariko landareez apaintzen ditu: palmerak, iratzeak... Hala ere, tipikoena koko-lorea da, horren usaina Gabonen definizioa da Paraguain». Era berean, frutak jartzen dituzte bertan, ofrenda gisa. Horretarako prestaketa-lanak abenduaren 8an hasten dituztela diosku paraguaiarrak, Inmaculadaren Eguna ospatu ondoren. «Han egun garrantzitsua da hori; guretzat Caacupé birjina da, eta izen bera duen herrira erromesaldia egiten dute askok egun horretan». Gabon Gauean eta Gabon Zaharrean, hemen bezala, afari handiak egiten dituzte, «hiru egunerako jaten dugu, kar kar. Amamak buztinezko labea zuen, eta bertan denetarik erretzen genuen: arraina, txerrikumea, arkumea, ahatea...». Ohikoa da ere otorduotan *clericó* edatea, «ardoarekin edo sagardoarekin nahastutako mazedonia. Hori aldeztu aurretik beratzen uzten dugu, eta egunean bertan lagun eta senideen artean banatzen dugu». Mokadu gisa, *sopa paraguaya* izeneko artoz egindako bizkotxoak ere egiten dute, baita *chipa guazu* pastel gatzatua, azkenbururako. Urte berriari hasiera emateko ohikoa da baita ere askotariko txapli-guak botatzea, «izugarria da». ◀

César Prats | Kuba




**«Gabonek aldaketa
asko izan dituzte,
Kubak berak bezala»**

Hemen ez bezala, hainbat urtez debekatuta egon da Kuban Gabonak ospatzea, publikoki eta ofizialki besterik ez bada ere. César Prats kubatarrak azaldu digunez, bertako Gabonetako ospakizunak «aldaketa asko» izan dituzte, «Kubak berak bezala». Batistaren garaian, AEBen presentzia Kuban handia zenean, ospakizunak «joera kapitalista zuten, hangoek bezala: zuhaitza, Bizartzuri...». 1959ko iraultza komunistaren ondoren, aldiz, apurka-apurka, jai erlijiosoak bertan behera uzten joan ziren herrialdean, eta «60ko hamarkadaren amaierarako, Gabonak, bere horretan, debekatu egin zituzten Kuban». Hiru hamarkada iraun duen debekua izan da; bitartean, jendeak bere etxeko berotasunean ospa zezakeen Gabon gaua, «baina oso modu xumean». Abenduaren 31ko jaia, aldiz, mantendu da beti, «urte-aldaketa da hori, ez dauka erlijioarekin zerikusirik; hortaz, jai handia egiten da egun horretan, eta petardoak ere botatzen dira». Orain, apurka-apurka, Juan Pablo II Aita Santua 1997an La Habanan egon zenetik, jaiok lehengoratzen hasi direla diosku Pratsek, «baina estilo amerikanotik apur bat aldentuta». Janariari dago-kionez, garaiotan tipikoa da indaba beltzak, txerrikume erreka, entsalada, tamalak, yuca moxoagaz eta platan matxoagaz egindako tostoiak egitea, «den-dena garagardo freskoaz eta ronaz lagunduta, noski!». ◀

an barrena

Gabonak ospakizun kristauak diren arren, urte-akabuan askotariko jaiez goza daiteke munduko leku askotan. Hainbat ospakizun aurki daitezke, herrialdez herrialde, Jesusen jaiotza edo urte berriaren etorrera ospatzeko.

Daniela Bravo | Txile



«Gabon Zaharreko jaia hondartzetan egiten da»

Abendua hasi bezain laster, Viejo Pascuero edo Bizarzuriaren irudiak agertzen hasten dira Txileko kale eta denda askotan, Gabonak heltzear daudenaren seinale. Era berean, nor bere etxea dekoratzen hasten da garaiotan, «zuhaitza muntatzen dugu eta, ondoan, jaiotza jartzen dugu. Nire familian urtero margotzen dugu azken hori, tradizioa da», azaldu digu Daniela Bravo txiletarrak. Hango Gabonetako ospakizunak hemengoen antzekoak direla diosku. Hala, abenduaren 24an familia eta gertukoak biltzen dira, afari oparo batez gozatzeko; azkenburuko gisa, tartean, Gabonetako ogia jaten dute, bizkotxo modukoa dena, iluna eta kristaldutako fruta daroana. Horrez gainera, afarietan *cola de mono* edari alkohol dunari tragoxka bat ematea ohikoa da ere; esnea, *pisco*, kanela, azukrea eta laranja daroatza. Opariak, hemen ez bezala, Gabon Gauean bertan banatzen dituzte, 00:00ak jo bezain laster, topa egin ondoren; Eguberria, aldiz, jasotakoaz gozatzeko eta sendiagaz egoteko eguna da Txilen. Gabon Zaharrean, aldiz, hondartzetan egin ohi dituzte ospakizunak: «arrastian hurbiltzen gara hareatzetara, 20:00ak aldera, leku on bat hartzeko. Izan ere, 00:00ak jotzen dutenean, kanpaien ostean, hondartzetatik su artifizialak ikustea da ohikoa». Ondoren, bertan ospatzen dute urte berriari ondo-etorria egiteko jaia. ◀

Simbarek Mohamed | M. Sahara



«Urteari amaiera eman eta berria ospatzen dugu guk»

Abendua eta urtarrila artean, Gabonak ospatzen dira kristautasunari lotutako herrialdeetan. Mendebaldeko Saharan, aldiz, musulmanak diren heinean, ez dute halakorik egiten. Hala ere, Simbarek Mohamedek azaldu duenez, urtearen amaiera eta urte berria ospatzen dituzte, abenduaren 31n eta urtarrilaren 1ean, hain zuzen ere. Dioenez, instituzionalki jai-egunak dira horiek, eta askotan eskolako oporrakaz bat egiten dute. Hala, ohikoa da egun horietan sendi eta ezagunak bisitatzeko bidaiak egitea. Abenduaren 31n, gainera, otordu bereziak egiten dituzte eta zorion-mezuak bidaltzen dizkiete gertukoei eta ezagunei, «mezu asko igortzen dira egunotan, jendeari zortea eta zoriontasuna opatzeko». Leku batzuetan, gainera, askotariko ekintzak egin ohi dituzte, «baina ez hemen, Euskal Herrian, egiten diren bezalakoak; ez dugu su artifizialik botatzen, adibidez». Gogoratzen duenez, gaztea zenean, kanpalekuetatik urrun zeuden institutueta joaten ziren, bertan egiten ziren jaietan parte hartzeko, «urte berriari ondo-etorria emateko askotariko jarduerak egiten genituen bertan, baita janari bereziak ere». Gaur egun, Mohameden esanetan, bertako jende askok munduan zehar bidaiatu du, eta herrialde askotako ohituretan oinarrituta nolabait kutsatu egin da Saharako; «garai oso politak dira, ilusioz beterikoak urte berria animo betez abiatzeko». ◀



Piroteknia erabiltzearen argi-ilunak

Gabonen atarian gaudela, laster entzungo dira bolanderak, txapliguak eta askotariko petardoak han eta hemen. Askok horietaz gozatuko dute, bolborazko artefaktu horiek sortzen dituzten argiek, soinuek, distirek eta txinpartek hipnotizatuta. Baina aldi berean, arriskutsuak izan daitezke horiek manipulatzeko dituztenentzat, eta izugarritzko beldurra eragiten diete beste hainbati, autismoa duten umeei eta animaliei batez ere. Hala, elkarbizitza sustatu guran, egunotan suziri horiek moderazioz jaurtitzearen aldeko kanpainak zabaldu dituzte hainbat udalek.

TESTUAK: IKER RINCON MORENO ►

Abenduan bete-betea murgilduta gaudela, udagoienak zuhaitz denak biluzik utzi ditu eta eguraldi hotzak neguari ondo-etorria egiteko dena prest utzi du. Askotariko koloredun argiak piztu dituzte han eta hemen, neguko iluntasunean auzo eta herrietako kaleak alaitzeko asmoz. Gabonak hurbil daude, eta horregaz batera, 2020 urtea ere bai. Hala, apurka-apurka entzuten hasi dira, gertu zein urrun, bolborazko lehergailuen eztanda hotzak. Umeek, gazteek eta helduek askotariko petardoak erabiltzen dituzte txinpart eta garrez osatutako egiazko su artifizial horietaz gozatzeko. Izan ere, ohitura da bolanderak, suzko erroberak, txapliguak eta abarreko petardoak jaurtitzea garaiotan, Gabon Zaharrea urte berriari hasiera emateko batez ere.

Suziriak eta su artifizialak jaurtitzearen usadioa Txinako Inperiotik datorkigu; eurak izan ziren bolbora beltza erabiltzen lehenak, eta orain dela 1.200 urte hasi ziren lehergailuak erabiltza zeru iluna koloreztatzen, izpiritu txarrak uxatzeko eta zortea eta zoriontasuna erakartzeko helburuagaz. Gurean, aldiz, musulmanen eskutik heldu zitzaigun teknologia hori, Iberiar penintsulan zeuden garaian. Ordutik, bolborari lotutako ohitura ludikoak ezarri dira hainbat lekutan, Valentzian batez ere. Gurean ere ospakizun askotan egon ohi da presente piroteknia, hala nola herriko jaietan zein Gabonetan.

Esan bezala, ospakizunetara lotuta egon ohi dira suziriak eta petardoak; horiek sortzen dituzten argiek, soinuek, distirek eta txinpartek efektu hipnotikoa eragiten digute pertsona askori. Hala ere, aldi berean, arriskutsuak izan daitezke horiek manipulatzeko dituztenentzat (anputazioak, erredurak...) eta izugarritzko beldurra eragiten diete beste hainbati. Mota horretako leherketak eta eztandak daudenean gehien sufritzen duten pertsonak autismoa dutenak edo epilepsia pairatzen dutenak izan ohi dira; askotan urduritasun-krisiak izaten dituzte zaratarekiko duten hipersentsibilitateagatik. Hala ere, denen artean gehien sufritzen duten izakiak animaliak dira, ez direlako gai mota horietako egoerak aurreikusteko, eta ez dutelako ulertzen zer ari den gertatzen.

AUTISMOA ETA PIROTEKNIA. Adituen arabera, 100 umetik baten autismoa du, eta kasu askotan, egoera horrek eragiten die zaratarekiko hipersentsibilitate bat edukitzea. Horri lotuta, neska-mutil horiei izu-ikara handia eragin diezaiekete petardoek eta su artifizialek; ondorioz, antsietatea eta estresa izan dezakete. Are gehiago, estimulu horiek, kasu batzuetan, min fisikoa eragin dezakete, baita hainbat sentimendu ere, hala nola ezinegona eta beldurra. Neuroerrehabilitazio Zerbitzu Pediatrikoak hainbat gomendio ematen ditu ospakizunetako eztandei aurre egiteko: estimulu auditiboak murrizteko tapoiak edo entzungailuak erabiltzea kaletik goazela; barruko arropa estuakaz janztear neska-mutilak gorputzean presio apurra eragiteko eta estresa murrizteko; umeari jakinaraztea zer gertatzen ari den (ospakizunak direla) eta leherketekiko kontaktu bisuala ekiditea; ez behartzea zaratak dauden lekuetara joatera; eta, azkenik, aurreikus daitezkeen egoera horiei aurre egiten ikastea desentsibilizazioa lantzeko eta zarata horiekiko tolerantzia handitzeko.

ANIMALIEN FOBIAK. Bolanderak eta txapliguen eztandek eraginda gehien sufritzen dutenak, duda barik, animaliak dira. Izan ere, leherketa horiek gizakiak baino gehiago izutzen di-



Gabon Zaharriari begira bagaude, onena da

120 dB

Txapligu baten eztandak 65 eta 120 dezibelio (dB) arteko zarata eragin dezake. Horixe da Europar Batasunak ezarri duen muga mota horretako artefaktuetan, bertan ezartzen baita minaren muga.

100etik 1

Adituen arabera, 100 umetik baten autismoa du, eta kasu askotan, egoera horrek eragiten die zaratarekiko hipersentsibilitate bat edukitzea.

tuzte animaliak, ez dutelako ulertzen zer dela eta gertatu den eztanda hori, ezta nondik datorren ere. Patricia Martínez Goiakoetxeak, Algorta albaitaritzazentroko adituak azpimarratu duenez, su artifizialak dauden gauetan, askotan, txoriak topa daitezke lurrian, hilda. Izan ere, bat-bateko zarata handi horiek eragin handia dute hegaztiengan; erritmo kardiakoa asko igotzen zaie eta sarritan bihotzekoak jota hil egiten dira, izuegatik. Gauza bera ematen da txakurren: beldurra dela eta ihes egiten saiatzen dira, leku seguruago baten bila; ondorioz, galdu edo auto batek harrapatuta hil daitezke, noraezean dabilzako nora joan jakin barik.

Albaitariak dioenez, normala da animaliek beldurra izatea zarata handiei eta eztandei: «Beldurra ona da, datorrenari aurre egiteko mekanismo bat da, besterik ez. Hala ere, kontuz ibili behar gara jokabide horrekin, fobia bilaka ez dadin». Katuen kasuan, euren joera da izutzen direnean ihes egin eta etxeko edozein bazterretan ezkutatzea. Haien entzumena txakurren baino askoz garatuagoa da, eta edozein zarata handi eragin diezaike. «Litekeena da katuek beldur handiagoa izatea txaku-



animaliarentzako konfort-gune bat sortzea etxean, ez tanden unean eroso senti dadin. Nutrazetikoak ere erabili daitezke, besteak beste.

rrek baino; hala ere, etxean egon ohi direnez beti, edozein txokotan ezkututzen dira eta lasai daudenean agertzen dira berriro, dena konpondu balitz bezala. Katuak sintomak ezkututzen ditu; txakurrak, aldiz, den-dena azaleratzen du».

Albaitariak dioenez, gehiago jakin daiteke txakurren jokatibideaz bestelako animaliakaz alderatuta, horiek gehiago ikertu direlako. Hala, dioskunez, txakurrek mekanismo bi jar ditzakete martxan beldurraren aurrean: paralizatuta geldi daitezke, izualdiaren eraginez mugi ezinik; edo ihes egin dezakete. Horrez gainera, hatsanka edo arnasestuka eta dardarka has daitezke, baita listuaren jarria areagotu eta takikardiak izan ere. «Azken sintoma horren harira, askotan entzuten da txakurren bat edo beste hil dela bihotzekoak jota eztanda baten ondoren. Hala ere, esan beharra dago hori ez dela ohikoena; halakoak gerta daitezke, bai, baina animaliaaren bihotza gaitxo edo ahul dagoenean bakarrik, guri, gizon-emakumeoi gerta dakiguk bezalaxe. Halakoetan bai, txakurrak hil daitezke izuaren eraginez; bestela ez da ohikoena», azaldu du Algortako albaitariak.

Lasaitzeko pastilla

«Hainbat urtez erabili dugun “Gabon Zaharreko” pastillaren harira, etologiak demostratu du horrek animaliak paralizatzen dituela eta kontziente jarraitzen dutela, beldurtuta. Ez erabili horiek inoiz»

Ez errietarik egin

«Beldurra izatea normala da; inoiz ere ez diogu errietarik egin behar animalia izututa egoteagatik, bestela sentsazio hori areagotuko diogu»

BELDURRA EZIN DA HEZI. Esan bezala, «normala» da animaliek beldurra izatea bolanderaren zaratei, baita trumoi-erasoei ere; txakurren kasuan, gainera, ekaitzek dakartzaten aldaketa atmosferikoak ere detektatzeko gai dira. Halakoetan ezinezkoa zaigu datorrenari aurrea hartzea, animalioi guk baino lehenago dakitelako ekaitza datorrela; petardoaren kasuan, aldiz, askotan aurreikus dezakegu zein garaitan eman daitekeen eztanda gehien, Gabonetan, kasu. Horrelakoetan animaliak prestatu ditzakegu datorrenari ahalik eta modurik onenean eta lasaienean aurre egiteko, diosku albaitariak. Hala ere, argi izan behar duguna da beldurra ezin dugula hezi, emozio bat delako, defentsarako erreminta bat: «Beldurra emozio-erantzun bat d, erasoaldi edo estimulu zakar baten aurrean agertzen dena. Arriskutsua izan daitekeen egoera bati aurre egiteko mekanismoa da beldurra. Hau da, erantzun normala eta moldagarria da aldaketa fisiologikoak eta jokaerazkoak eragin ditzakeena. Hala ere, beldurra egokitzen gisa jardun dadin, animalien segurtasunerako benetan arriskutsuak izan daitezkeen egoeretan soilik agertu beharko litzateke beldurra. Izualdia proportzioz kanpoko denean (iraupenari zein intentsitateari dagokionez), orduan fobiaz berba egiten ari gara. Erantzun fobikoa ez da normala, ezta egokitzenenerakoa ere».

Beldurra normala da, eta inoiz ere ez diogu errieta egin behar animalia izututa egoteagatik, bestela sentsazio hori areagotuko genioke; hala ere, badaude kasu batzuk non animaliek ez dieten beldurrik eztanda-hotsei. Izan ere, Martinezek azaltzen duenez, gauza askok baldintza dezakete animaliaaren jokabidea, hala nola horren sozializazioa, genetika eta izandako esperientzia negatiboak. «Berbarako, genetikoki *border collie* txakurrak beldurtiak izan ohi dira, oso urduriak; hala ere, txiki-txikitatik egoera batekiko sozializazioa egiten badugu, azkenean ohitu egingo dira eta ez diote horri beldurrik izango». Sozializazioaren beharra nabarmendu du albaitariak, «egoera baten aurrean animaliek beldur hori kudeatzen ez dakitenean hurrengoan erantzuna askoz ere okerragoa izan daitekeelako».

TRATAMENDURAKO ESTRATEGIAK. Beldurra fobia bilaka ez dadin, eta animaliak (txakurrak eta katuak, batez ere) ahalik eta erosoan egon daitezen, Patricia Martinez albaitariak estrategia bi gomendatu ditu egunotarako: terapia paliatiboa eta terapia osagarria. Bien artean, lehenengoari jarraitzea gomendatu du adituak, epe laburrean eroso daitekeelako aurrera. Kasu honetan, animaliak oraindino beldurrik sentitzen ez duen unean hasi behar dugu terapia, hau da, eztanda-hotsik entzuten ez denean. Berbarako, Gabon Zaharrari begira bagaude, tratamendua aste bi lehenago hasi beharko genuke, gutxi gorabehera. Lehenengo urratsa animalia etxean konfort-gune bat prestatzea litzateke, izualdia hasten denean bertan ahalik eta erosoan eta seguruen senti dadin. Era berean, farmakoak erabili daitezkeela azaldu du albaitariak, hala nola antsiolitikoak eta nutrazetikoak. Lehenengoakaz kontuz ibili beharra dagoela diosku adituak, eta alde aurretik dosiak neurtu behar direla azaldu du. Hala, bien artean nutrazetikoak gomendatzen ditu: «Substantzia naturalak erabilia, amaren feromonak izango balira bezala igortzen dira, animalia baretzeko; lepokoa edo entxufeaz izan daiteke etxean jartzeko. Modu honetan, estresa txikiagotzen diogu animalia».

Terapia osasungarriak, aldiz, denbora gehiago behar du; paliatiboaren pauso denak eman beharra dago, baina baita sozializazioa ere, «adibidez, petardoaren grabazio bat jar genezake etxean, hainbat saiotan, gero eta ozenago, animalia lasai-lasai dagoela. Hala, apurka-apurka ohitu egingo da zarata horretara». ◀



Iratxe Ormatza Imatz

Bakioko eskolatik Mungiako institutura joan nintzen, eta handik Ingalaterrara ingelesa ikasten, eta gero soziologia, York eta Kent-eko unibertsitateetan. Bueltan jabetu nintzen istorioak asmatzen eta berbekaz olgetan hartzen nuela plazerik handiena. Urteetara, *Hegoak* liburuan jaso nituen Hego Ameriketako barrenako bidaiaren bizipenak, bizkaieraz. Harrezkero, helduentzako ipuin franko argitaratuta daukat, *Gaztezulon*, *Uberanen*, eta *Idatz&Mintzen*, batez ere. Honakoa laugarrena da HIRUKAn, eta oraingoa, alabarekin batera sortu dut istorioa.



Txipi eta lurtarrak


ILUSTRAZIOA:
ALEX ORBE

Gurusoak eta lagunak hil zaizkio gerran Txipiri. Triste dago, baina handiagoa da gurasoen espazio-ontzia bilatzeko gogoia, eta korrikari ekin dio. Aurkitu duenean, buruz behera sartu da, motorra piztu, eta brast, gorantz egin du. Bihotza ere altxatu zaio Txipiri. Espazioan meteoritoak, izar adartsuak eta iheskorra saihestu ditu, batzuk txiripaz, eta beste batzuk agintea ezin hobeto erabiliz, amak irakatsi zion bezala. Ibilian-ibilian, gure eguzki-sistemara heldu da; lehenago Pluton txikia ikusi du, gero Neptuno, Urano, Saturnoren eraztun ederrak, Jupiter handi-handia, eta Lur planeta, gehien gustatu zaiona. Atmosferara sartu denean, saltoka hasi da pozez; gura barik, baina, botoi gorria zapaldu, eta *karrask* lehertu da ontzia. Zenteilotsean joan da Txipi airean, harik eta ur-tanta handi batek altzoan hartu arte. Lurreraino jaitsi du.

Luzaroan konortea galduta egon ostean, bakarrik eta goibel esnatu da. «Ei» entzun du; begiratu, eta ez du ikusi inor inguruan. «Aizu, aizuz», berriro.

Nor ote dabil berbetan? Esango luke ondoko etxeari berbak atera zaizkiola: «Bai, neu naiz!», eta etxeko ateak zabaldu eta ixten ikusi ditu Txipik. «A-rra-no-po-la!», irten zaio. Teila gorriko etxeak, berriz: «Zuk zelan daukazu izena? Nik, Hartze». «Eeee, Txi, eee, Txipi daukat izena» esan dio apur bat lotsatuta: ez du ikusi inoiz etxe bat berbetan. Adorea batu duenean galdetu dio: «Baina zu etxe bat zara, eta berba egiten duzu?». Eta Hartzek: «Bai, berbetan dakit. Nongoa zara zu?». «Beste planeta batekoa naiz ni, Marralde planetakoa. Han denok gara marrez egindakoak, baina hemen borobildu egin zaizkit marrak. Gerran galdu ditut ama-aita, lagunak eta senide guztiak». «Eta zelan etorri zara hona?». «Gurasoen espazio-ontzian. Aizu, Hartze, dinosauroak gustatzen zaizkizu?». «Bai, gehien belozirraptorea». «Hara! niri ere bai», erantzun dio Txipik.

Iluntzean, hotz egiten duela-eta, barrura sartzeko esan dio Hartzek. Han, lamina bat topatu du lotan; «Itzartu!» esan dio. Jolasten hasi dira berehala,



Gerrak suntsituta utzi du Txipiren herria, triskilduta. Gurasoak galdu ditu, eta lehengusu-lehengusinak, izeko-osabak, aitita-amamak. Eta lagunak. Maite dituen guztiak galdu ditu. Zer egin lezake? Txipik argi dauka. Gurasoen espazio-ontzia hartu, eta Marraldetik izarralderantz joko du. Espazioan ibiliko da planeta eta izarren artean. Nora joango ote da? Zer aurkituko du? Nor ezagutuko ote du leku berrian? Zelan hartuko dute bertakoe? Zer gertatuko ote zaio? Zer egingo du? Zelan sentituko da? Etorri gugaz, gura baduzu jakin.

ea nor den handiena. Laminak irabazi du, trikimakoak ipini dituelako mozorroaren azpian. «Eta bihar umeak etorriko dira», esan du Martinak. «Umeak?», erantzun dio Txipik. «Bai, eskola bat da hau». Jauzika hasi dira pozaren pozez. «Nik Txipi daukat izena, eta zuk?». «Martina».

Egunero, arineketan sartzen dira umeak eskolara, eta haien aurretik irakasleak, berandu dabiltzalako beti. «Ai!» entzun du eskaileretan Txipik, eta abiadan joan da: «Zer duzu?». «Kotxe-jostailu bat zapaldu, eta labain egin dut», esan dio umeak. Txipik, berriz, ura eman, eta galdetu dio ea besterik behar duen. «Globo bat», eta bat ekarri dio. Umea, pozarren: «Belozirraptore-globoa! Nire gustukoena!». Halako batean, eskutik oratu dio irakasle batek umeari, eta jolastokira eroan du. Ez du Txipi ikusi, ezta umearen globoa ere. Helduentzat ikusiezina dira Txipi eta Martina, baita egiten dituzten gauzak ere. Batzuetan, ziria sartzen diete irakasleei: euren hamaiketako jan, margoak ostendu, instrumentuak ezkutatu, edo

jolasak lekuz aldatu... Ijiji! Umeakaz, berriz, jolasten ibiltzen dira beti, eta maite-maite egiten diete, behar badute.

Hartzek iluntzean beste itxura bat hartzen du. Barruko begiak eta ahoa zabaltzen zaizkio, eta bigundu egiten da: koltxoneta modukoak dira haren hormak eta lurra, eta itzel ibiltzen dira haietan saltoka Martina eta Txipi. Eskailerak, berriz, txirrista bihurtzen ditu: gora eta behera ibiltzeko ezin hobeak. Afalostean, berriz, kontu-kontari egoten dira hirurak.

Gaur, Txipi lotan joan aurretik, margo ugarigaz orri handi batean marraztu ditu Hartze, Martina eta hirurok, eta eskolako umeak inguruan, denak pozik eta jolasean. Gurasoei, senideei eta lagunei asko gustatuko litzaieke. Haien falta dauka, handia, gainera. Pentsakor dagoela, Martinak atzetik besarkatu du, eta Hartzegaz batera esan dio: «Eskerrik asko». Eta irribarre bategaz, Txipik: «Zuoi».

Etxeko txikien bizipoza pizteko

Maitia ARROPA KUSTOMIZATUA



Erdiko kalea, 46. ARRASATE (GIPUZKOA)
Tel.: 690 322 393
maitiaeuskalherria@gmail.com
www.maitia.net

- 1 Umeentzako bodya. 27 €
- 2 ADUR jertsea. 59 €
- 3 USTARITZ motxila beltza. 37 €

1



2



3



Arbi ERREALITATE AREAGOTUAN OINARRITUTAKO LIBURU ELKARRERAGILEAK



Iker Burguerak egindako lanak
contact@arbibook.com
www.arbibook.com

- 4 ARBI 1, 2, 3 eta 4 zenbakiak. 17 € ale bakoitzeko.
- 5 LORA letrak lantzeko liburua. 16,99 €
- 6 ARBI koloreztatzeko liburua. 12,99 €

4



5



6



Cerebrito Perez ETXEKO TXIKIENEK ABILEZIA LANTZEKO JOLASAK



Basagoiti Etorbidea, 40. ALGORTA
Tel.: 946 574 116
www.cerebritoperez.com

- 7 Colmena de abejas jolasa. 3 urtetik gorako umeentzat. 23,5 €
- 8 Rebana la zanahoria jolasa. 5 urtetik gorako umeentzat. 20 €
- 9 Katamino jolasa. 3 urtetik gorako umeentzat. 29,95 €


7



8



9



aukerak

Laster ibiliko dira etxez etxe Olentzero eta Mari Domingi. Dena prest zurera datozenerako? Hona hemen hainbat ideia, etxeko txikien aurpegieta irribarrerik handiena sortzeko. Goza ditzazuela!

Oveja creativa DISEINU GRAFIKO, ILUSTRAZIO ETA WEB-ZERBITZUAK



Tel.: 946 533 095 / 639 922 258
hola@ovejacreativa.com
www.ovejacreativa.com

- 10 Martin, Lea eta Ganbarako Liburu Magikoa. 14,99€
- 11 Martin, Lea eta Denboraren Harria. 14,99€



**Dibertsioa
Baliokin**

**Diversión
con
valores**

**28
ABENDUAK
DICIEMBRE**

**GAUPIN
NOCHE
PIRATA**

UMEEN GABONETAKO PARKEA PARQUE INFANTIL DE NAVIDAD

**ABENDUAK 18 - URTARRILAK 5
18 DICIEMBRE - 5 ENERO**

Kontsultatu gure ordutegiak eta UGP-ko jardura guztiak:
Consulta nuestros horarios y todas las actividades del PIN en:
www.pin-ugp.com
www.bilbaoexhibitioncentre.com

**B! BILBAO
EXHIBITION
CENTRE**

EXPOSSIBLE!



URIBE KOSTA | Olentzero eta Mari Domingi

Oparia edo ikatza?

Barrika

Abenduak 23, astelehena

18:00 Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, Udaletxe ondoko karpara.

Berango

Abenduak 24, martitzena

18:30 Olentzeroren kalejira kultur etxetik pilotalekura.

Erandio

Abenduak 23, astelehena

18:30 Erandiogoikoa. Olentzero eta Mari Domingiren etorrera.

Abenduak 24, martitzena

17:30-20:00 **Altzaga.** Olentzeroren etorrera. Kalejira, dantzak, kantuak...
Jai-amaiera Irailaren 23a plazan, suaren inguruan.

17:30 **Astrabudua.** Olentzeroren etorrera. Kalejira Ignacio Aldekoa kaletik Mendiguren plazara. Ondoren, dantza-erakustaldia eta Gabonetako otzararen zozketa.

Getxo

Abenduak 22, domeka

18:00 **Neguri.** Kalejira.

19:00 **Neguri.** Olentzerori eta Mari Domingiri ondo-etorria. Musika, gozo-lapikoak, gaztainak eta txokolatea denontzat.

Abenduak 23, astelehena

17:00 **Andra Mari.** Umeentzako jolasak, Malakaten.

18:30 **Andra Mari.** Txitxi-burruntzi jana, txistulariak, trikitilariak eta fanfarreak girota, Malakaten.

18:30 **Areeta.** Antzerkia, Eskoletako plazan.

19:00 **Itzubaltzeta/Romo.** Umeentzako tailerrak eta Olentzerori eta Mari Domingiri eskutitzak ematea, Elizako arkupeetan.

19:00 **Algorta.** Umeen bertso-saioa San Nikolas plazan.

19:30 **Itzubaltzeta/Romo.** Triki-poteoa, herrian zehar.

20:00 **Algorta.** Kantu-kalejira Taberna Ibiltariagaz, San Nikolas plazatik.

Abenduak 24, martitzena

10:00 **Areeta.** Kalejira eta harrera Olentzerori Bizkaia Zubian.

11:00 **Areeta.** Erakusketak eta erromeria.

12:00 **Algorta.** Umeentzako puzgarriak.

12:45 **Areeta.** Berantzagi dantza taldearen emanaldia.

13:00 **Areeta.** Bertso saioa, ALBERen eskutik.

17:00 **Andra Mari.** Olentzeroren kalejira girotua; ondoren Olentzero erreko dute Malakaten.

17:00 **Itzubaltzeta/Romo.** Kalejira Olentzerogaz, Santa Eugeniatic abiatuta.

17:30 **Algorta.** Olentzeroren kalejira, Benantziotik abiatuta.

18:30 **Areeta.** Olentzeroren kalejira eta Berantzagi dantza taldearen emanaldia, Eskoletako plazatik abiatuta.

19:00 **Algorta.** Olentzero eta Mari Domingi bizidunei musuak eta agurrak, musika, txokolate-jana, txalapartariak, bertsolariak, Olentzeroren kondaira, aurrekua, eta amaitzeko panpina erretzea.

19:00 **Itzubaltzeta/Romo.** Olentzero erretzea, Santa Eugenia.

19:30 **Itzubaltzeta/Romo.** Txokolate-jana Santa, Eugenia.

Gorliz

Abenduak 24, martitzena

18:30 Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, Elizako plazan, Aratz dantza-taldeagaz.

Leioa

Abenduak 23, astelehena

18:00 **Pinueta-Romo.** Olentzeroren etorrera.

18:00 **San Bartolome.** Olentzeroren etorrera, Kulturgunean.

Abenduak 24, martitzena

17:30 **Herrigunea.** Olentzerogaz kalejira, Elexalde errotatik Kultur Leioara.

17:30 **Lamiako.** Olentzeroren etorrera, metro-geltokiaren ondoan.

18:00 **Txorierrri.** Olentzeroren etorrera. Harrera 19:00etan.

18:30 **Herrigunea.** Olentzerori harrera Kultur Leioan.

19:30 **Pinueta-Romo.** Dantzak plazan eta txokolate-jana.

Lemoiz

Abenduak 24, martitzena

16:30 Olentzero eta Mari Domingiren kalejira, Andrakatik Urizarerraino.

19:00 Antzerki-ikuskizuna, Urizarren.

Plentzia

Abenduak 24, martitzena

18:30 Olentzero gaua: Gabon-kantak elizako enparantzan.

18:45 Kalejira, zubitik abiatuta.

19:00 Olentzero eta Mari Domingi antzezpena, elizako enparantzan.

Sopela

Abenduak 24, martitzena

17:00 Kalejira, Larrabasterrako Urgitxieta plazatik abiatuta, udaletxeraino.

Urduliz

Abenduak 24, martitzena

18:00 Kalejira herrian zehar, eta Olentzeroren harrera Udaletxeko plazan.

URIBE KOSTA | Gabonetako h

Opor-e

Barrika

Abenduak 13 eta 20

18:00 Gabonetako eskulan-tailerrak, bitarteko umeentzat, liburutegian eman daiteke izena (liburutegia).

Abenduak 21, zapatua

18:30 Gabon-kantak Aita Gotzon abeslariarekin, eskumenez. Lekua zehazteke.

Abenduaren 24tik urtarilaren 1era

Egun osoan TxikiPIN, umeentzako Gabonak.

Abenduak 27, barikua

11:00 Tor magoaren ikuskizuna: *Amagatzen*. Ander Deuna kultur aretoan.

Berango

Abenduak 14, zapatua

19:00 Umeentzako zinema: *El Grinch*. Antzokian. Gaztelaniaz. Doan.

Abenduak 15, domeka

18:00 Ipuin-kontaketa: *Desioak*. Aipatzen. emanaldia, Berango Antzokian.

Abenduak 21, zapatua

19:00 Berango Antzokiaren IX. urteurren.

Abenduak 22, domeka

12:30 Simon de Otxandategi dantza-taldea. emanaldia, Berango Antzokian.

18:00 Ipuin-kontalaria umeentzat: *Ondorengatik*. Berango Antzokian. Euskaraz.

Abenduak 23, astelehena

18:00 Kiki, Koko eta Moko pailazoaren *Tatatxan Zirkua eta Dantza*. Euskaraz.

Abenduak 26 eta 27

11:00-13:00 / 17:00-20:00 Umeentzako udal-pilotalekuan.

Abenduak 28, zapatua

19:00 ESSTA ballet errusiarraren emanaldia. Antzokian: *Krakatuk intxaurra*.

ARTOLOZAGA

Tailerrak

ANAIK

Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.talleresartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

GetxoGasol

REPSOL

GetxoGason Euskararekin bat!

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

944 301 500

Getxo eta Berango artean



ainbat ekitaldi

egunez gozatzeko hamaika aukera

Abenduak 29, domeka

19:00 Antzerkia: *El avaro*. Berangoko Txirlora-ACADAE taldearen eskumenez, Berango Antzokian. Gaztelaniaz. Doan.

Abenduak 30, astelehena

18:00 Potxin eta Patxin pailazoaren emanaldia: *Zirkuko izarrak*. Berango Antzokian. Euskaraz. Doan.

Urtarrilak 2, eguna

18:00-21:00 Gazte Parkea, pilotalekuan.

Urtarrilak 3, barikua

18:00 Pailazoak, Txirri. Mirri eta Txiribiton. Berango Antzokian. Euskaraz. Doan.

Urtarrilak 4, zapatua

19:00 Umorezko bakarriketak: Asier Hormaza eta Maika Jurado. Berango Antzokian. Gaztelaniaz.

Urtarrilak 5, domeka

19:30 Erregeen kabalgata Kultur Etxetik pilotalekura. Ondoren jaia, DJ Urkogaz.

Erandio

Abenduak 18, eguaztena

19:00 Gabon-kantak Astrabuduan, Josu Muruetatik.

Abenduak 22 eta 23

11:00-14:00 / 16:00-19:00 Txikientzako gunea Erandiogoikoan. Sarrera doan.

Abenduaren 26tik 29ra

11:00-14:00 / 16:00-19:00 Txikientzako gunea Altzagako kiroldegian. Sarrera doan.

Abenduak 28, zapatua

19:30 Gabonetako kontzertua, San Agustin elizan.

Urtarrilaren 2tik 5era

11:00-14:00 / 16:00-19:00 Txikientzako gunea Astrabuduako kiroldegian. Sarrera doan.

Urtarrilak 5, domeka

18:00 Errege-kabalgata Astrabuduan.
18:30 Errege-kabalgata Altzagan.

Getxo

Abenduaren 13tik urtarrilaren 6ra arte

11:00-14:00 / 17:00-21:00 Getxolandia, Areetako Xake plazan. Banakako txartela: 1,2 euro. Bost bidaia txartela: 4,5 euro.

Abenduak 13, barikua

18:00-20:00 *Photomatoia* Olentzerorekin ekimena, Bidezabaleko arkupean.

Abenduak 21, zapatua

12:00-14:00 *Photomatoia* Olentzerorekin ekimena, Algortako Telletxe plazan.

16:00 / 18:30 *Bizi Dantza* ikuskizuna, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak Muxikebarrin. Sarrera: 8 euro.

Abenduak 30, astelehena

17:00 / 19:00 *Golazen 6.0* ikuskizun musikala, Muxikebarrin. Sarrera: 8 euro.

Urtarrilak 5, domeka

17:30 Errege Magoak, Andra Marin eta Algortan.
19:30 Errege Magoak, Areetan eta Itzubaltzeta/Romon.

Gorliz

Abenduak 20, barikua

20:30 Gabonetako kantak, elizan. Lirain abesbatza eta Barrikako Jubilatuen Abesbatza.

Abenduak 22, domeka

11:30-14:00 / 17:00-19:30 Umeentzako parkea Elizako plazan: ludoteka, puzgarriak...

Leioa

Abenduak 27, barikua

18:00 EnÁmbar konpainiaren *Mukuki* dantza-ikuskizuna, Kultur Leioan. Sarrera: 5 euro.

Abenduak 28, zapatua

18:00 Markeliñe konpainiaren *Julietas, Romeo Circo* antzezlan, Kultur Leioan. Sarrera: 5 euro.

Abenduak 29, domeka

18:00 Glu Glu konpainiaren *Pinotxo* antzezlan, Kultur Leioan. Sarrera: 5 euro.

Lemoiz

Abenduak 17, martitzena

17:30 Mungiako Izenaduba Basora txangoa. Irteera Armintzatik (17:40an Urizarren).

Abenduak 26, eguna

17:00 *Disko Txantxa* disko-festa, Armintzako pilotalekuan.

Abenduak 27, barikua

16:30-20:30 Gabonetako parkea Armintzako pilotalekuan.

Abenduak 30, astelehena

17:00 Antxa eta Pantxa pailazoak, Urizarreko gelan.

Plentzia

Abenduak 22, domeka

10:30-15:00 Gabonetako azoka. Euskal Herriko artisautza-produktuak. Ontziola plazan.

Abenduaren 29tik 31ra

11:00-14:00 / 17:00-20:00 Gabonetako parkea Jai Alai frontoian. Abenduaren 31n, 11:00etatik 15:00etara baino ez.

Sopela

Abenduak 26, eguna

18:00 *Zoro gaitezen*, Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoaren ikuskizuna, Kurtzio kultur etxean. Euskaraz. Sarrera: 4-6 euro.

Abenduak 30, astelehena

18:00 *Mari Errauskin* umeentzako antzezlan, Glu Glu konpainiak eskainia, Kurtzio kultur etxean. Euskaraz. Sarrera: 4-6 euro

Urtarrilak 5, domeka

18:00 Errege Magoen kabalgata, Larrabasterratik abiatuta Udaletxeko plazaraino.

Urduliz

Abenduak 28 eta 29

11:00-14:00 / 16:00-19:00 Umeentzako Gabonetako parkea, Iparralde kiroldegian.

GABE
ZERBITZUAK SL

676 060 811 // 691 482 697
www.gabezerbitzuak.es
@gabezerbitzuak
gabelanak@gmail.com

hiruka app
Liribe Kostako informazio gurtia eta agendarik osoena.

- Agenda
- Albisteak
- Argazkiak eta bideo albumak
- Geolokalizazioa
- SOS botoia

Deskargatu!

Google Play
App Store

TXIBERRI EDANTOKIA

FRONTOI
PARTIKULARRA

EGUBERRI on!

AITA GOTZON 4,
URDULIZ
94 676 07 15

Aukera bikain ugari, zure etxe on

Aldai ARTISAU-TAPIZTEGIA

Basagoiti etorbidea, 32. ALGORTA
Tel.: 944 609 031

Artisau-tapiztegia: dekorazioa, erakusketa eta tailerrak.

Ohialak eta margoturiko orma-paperak, metroka salgai.



Iñaki BITXITEGIA

Villamonte plaza, 3. ALGORTA
Tel.: 944 302 345
informacion@joyeriainaki.es
www.joyeriainaki.es

1 **Diamanteen belarritakoak**

2 **Urrezko eskumuturrekoa**



Trikimailu JOLASAK

Kresaltxu, 14. ITZUBALTZETA
Tel.: 946 03 83 74
www.trikimailugetxo.wordpress.com

3 **ATOPIA RPG**
Euskarazko lehenengo
rol-jokoa, umorez josia
33€

4 **FANTASMA BLITZ** arreta-
eta erreflexu-jolasa
15€

5 **MARVEL: CHAMPIONS**
karta-joko kooperatiboa
60€



do-ondoan

Orrialde hauetan Uribe Kostako saltokietan eros daitezkeen hainbat produktu topatuko dituzu, zure etxetik oso hurbil. Opariak bertan eskatzeko aukera izango dute Mari Domingik eta Olentzerok.

Kantxa KIROI-MODA



Torrene, 4. ALGORTA
Tel.: 944 911 882
info@kantxa.eus
www.kantxa.eus

6 **Futbol-botak**
89,95€ - % 15 = 76,45€

7 **Lumazko jaka**
107,4€

8 **Kamiseta**
54,95€

9 **SALOMON zapatilak**
126€ - % 20 = 100€



Izarbide Kipula SUPERMERKATU EKOLOGIKOA



Sabino Arana, 82. LEIOA
Tel.: 944 642 749 / 616 076 844
kipulaekodenda@gmail.com

10 **SAKURA aroma difusorea**
40,5 €

11 **Kristalezko ur-botilak eta altzairu herdoilgaitzeko termoak (300 ml, 550 ml eta 750 ml)**
9-18 € artean

12 **Shiitake perretxikoen autolaborantzarako kit-a**
19,5 €



Lobon BITXITEGIA



Akilino Arriola, 1. SOPELA
Tel.: 946 765 406

13 **Urrezko lepokoa**
210€

14 **Erlojua**
99€



Oso GIZONENTZAKO MODA



Algortako etorbidea, 59. ALGORTA
Tel.: 653 721 056
osoalgorta@gmail.com

15 RAINS kapusaia
95 €

16 DENIM MECHANIC prakak
79,99 €

17 BLUNDSTONE botak
185 €



Her EMAKUMEEN MODA ETA IRUDI-AHOLKULARITZA



Algortako etorbidea, 53. ALGORTA
Tel.: 944 040 680
heralgorta@gmail.com

18 ROKA motxila.
59,95 €

19 Txamarra.
169 €

20 Praka beltzak.
60 €



Zaindu ESKU-TERAPIA ZENTROA

Landa Doktorea, 4. SOPELA
Tel.: 946 026 779
www.zainduterapia.eus

- Gihar eta artikulazio arazoak.
- Disfuntzio organikoak.
- Haurdunaldiko eta jaioberrietako arazoak.
- Elikaduraren gaineko aholkuak eta osagarriak.

*Oparitu «zuretzat» osteopatia-
eta fisioterapia- kontsulta bat.*



Berezi ADIN GUZTIENTZAKO BARNEKO MODA

Telletxe, 15. ALGORTA
Tel.: 944 604 883
berezimoda@gmail.com

21 Neskentzako txabusina polarra.
45€

22 Neskentzako pijama jaka, kotoi
organikoz egindakoa
37,9€

23 Ume txikientzako peelea, kotoi
organikoz egindakoa
34€



GABONAK KULTUR ETXEETAN

SORMENA LANTZEKO JARDUERAK, ZIRKU TAILERRA, LUDOTEKA,
MUSIKA, SUKALDARITZA...

ABENDUA
23/26/27/30

URTARRILA
02/03

ADIN TARTEA

1-12 urte

NON

Romo Kultur Etxean
Algortako Kultur Etxean
(Villamonte)

ORDUTEGIA

⌚ 11:30-13:30

⌚ 17:00-19:00

DOAKO EKINTZAK
LEKU MUGATUAK



IZEN-EMATEA	IZENA EMATEKO ORRIA	JENDAURREKO ZOZKETA
ABENDUAK 09-13	• ROMO KULTUR ETXEAN • ALGORTAKO KULTUR ETXEAN (VILLAMONTE) • WWW.GETXO.EUS/GABONAK	• ABENDUAK 18 • 12:00. ROMO KULTUR ETXEAN

 **Getxo**
bizi ezazu

 **Getxo**
KULTUR ETXEA
bizi ezazu



Hirukira olgetan

© Garbine Ubeda

SOLUZIOAK:




Hamalau!

Aurki itzazu irudi bi hauen artean
dauden ezberdintasunak.
Hamalau dira guztira.



Handitik txikira

Ordena itzazu hostook, handitik txikira. Jarri hosto bakoitzaren alboko biribilean ordenari dagokion zenbakia.





Puzzlea

Hemengo pieza hauek beheko puzzlearenak dira, baina hamar falta zaizkigu puzzlea erabat osatzeko.

Zeintzuk? Non geldituko zaizkigu zuloak?

Gainera, hemengo piezetako bat okerra da, ez dagokio puzzleari. Zein da?



Mezua

Erabil ezazu alboko alfabetoa Olentzerok zer dioen jakiteko.
Iruditxo bakoitzaren azpiko laukian dagokion letra jarri eta berbak osatuko dituzu.



Lehiaketa **Non dago?**

Uribe Kostako irudi honetan zer ageri den igarriz gero, beheko saria irabaz dezakezu.

Argazkia NON egindakoa den badakizu?

**olgetan
euskaraz**



DOAN
GRATIS

JOLASTEKO & KANTATZEKO TALDEAK

Urtarriletik otsailera,
astean behin ordubetez.
Getxoko ikastetxeetan,
2-5 urteko ume eta familientzat.



Itzala

Ea, bide batez, zeintzuk dira Olentzeroren eta txakurraren itzal zuzenak?



Saria Umeentzako liburuak

Ibaizabal argitaletxeari esker, 3 urtetik gorako umeentzako hainbat liburu zozkatuko ditugu. Sari hori irabazi gura baduzu, abenduaren 20a (barikua) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337.



IBAIZABAL ARGITALETXEARI ESKER, UMEENTZAKO HIRU LIBURU-SORTA HAUETAKO BAT IRABAZ DEZAKEZU!



KURTZIO LAGUNA

EGIZU KURTZIO LAGUNA TXARTELA!

¡HAZTE AMIGO DE KURTZIO!



**KURTZIO LAGUNA TXARTELA EGINEZ GERO,
ABANTAILAK IZANGO DITUZU KURTZION ANTOLATUTAKO KULTUR PROGRAMAN.**

**AL HACERTE LA TARJETA KURTZIO LAGUNA,
TENDRÁS VENTAJAS EN EL PROGRAMA CULTURAL DE KURTZIO.**

ABANTAILAK:

- 5 gonbidapen ordainpeko ikuskizunetan
- Gonbidapenak eskuratzeko lehentasuna
- Programazioaren informazio zehatza

VENTAJAS:

- 5 invitaciones para espectáculos de pago
- Prioridad para conseguir invitaciones
- Información precisa de la programación

URTEKO TXARTELAREN PREZIOA:

- 10 € (Sopelako biztanleak)
- 15 € (Sopelako biztanleak ez direneak)
- Doan (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dutenak)

PRECIO ANUAL DE LA TARJETA:

- 10 € (Empadronados/as en Sopela)
- 15 € (No empadronados/as en Sopela)
- Gratis (para los perceptores de Renta de Garantía de Ingresos)

IZEN EMATEAK:

Formularioa bete eta Kurtzio Kultur Etxean, Udaletxean edo Sopelارين eman.

INSCRIPCIONES:

Rellena el formulario y entregalo en Kurtzio Kultur Etxea, en el Ayuntamiento o en Sopelarin.

K
U
R
T
Z
I
O
L
A
G
U
N
A

Kurtzio Kultur Etxea


Sopela
herria gara



Idatziozu gutuna Olentzerori!

Kaixo, Olentzero eta Mari Domingi






Olentzero eta
Mari Dominguren borda
Basoko bidea, 24 Euskal Herria

2019ari agur

hiruka
Gehigarri berezia

154. zenbakia
2019ko abendua



Errimaz errima, urteari begira

Badoa 2019a, aipatzeko moduko albiste eta gai ugari utzita. Horietako batzuk gogora ekarriko ditugu datozen orrietan, ALBEko bertsolarien laguntzagaz.



Lemoizko zentral nuklearra



Urtarrilean baieztatu zen aurretik ere jakina zena: Espainiako Gobernuak Eusko Jaurlaritzaren esku utziko zuela Lemoizko zentral nuklearraren eremua. Jaurlaritzak leku horretan arrain-haztegi bat ipintzeko asmoa agertu izan du, baina oraingoz ez da ezer zehaztu. Eguzki talde ekologistak, berriz, lurzoru horri «historiarekin bat datorren erabilera ematea» eskatu du, eta gogor kritikatu du Iberdrola libre geratu izana eremua lehengoratzeko arduraz.

TESTUA: UNAI BREA ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶



*Aurrerapena aitzaki
zenbat zirimola!
Alferrik isuri zen
dirua eta odola.
Arduran horra gure
Tartalo edo troll-a:
Lehen Iberduero zena,
gero Iberdrola.*

JOSU LANDETA EGURROLA
Getxo

*Zentralak zapuzturik
hainbaten bizitzak,
musu-truk irten dira
lapurren ekintzak.
Negargarriak dira
ditugun baldintzak,
proiekturik ez baitu
Eusko Jaurlaritzak.*

*Basordaren gainean
gezurra ari du,
hura lehengoratzeko
ez ei da hainbat diru.
Arrain-haztegiaren
alde ari zaigu
handikien tronutik
hamaika bisigu.*

Muxikebarri, zabalik



Martxoaren amaieran zabaldu zituen ateak Muxikebarrik, Getxoko kulturaren eta artearen gune nagusiak, Getxo Antzokia egondako lekuan. Otsailean, artean izen berria ere ezagun ez zela, haren eraikuntzaz eta etorkizunerako aurreikuspenez erreportaje zabala kaleratu genuen HIRUKAN; agerian geratu zen udalerrian gai labaina izan dela hamarkada bat hartu duen Getxo Antzokiaren birmoldaketa, baita Udalaren kultur kudeaketa osoa ere.

TESTUA: UNAI BREA ARGAZKIA: HODEI TORRES ►



*Auzokide sumindu
danen aldarria;
kudeaketa berez
asaldagarria;
denbora zein dirutan
zer lotsagarria!
Horren antzetik dator
antzoki barria.*

IÑIGO KORTAZAR ELIAS
Algorta

*Muxikebarri lehengo
Muxikelandara.
Aretoek hondartza
izen: Ereaga,
Gorrondatxe, Areeta
zein Arrigunaga.
Kulturaren olatu
izan bitez bada!*

*Bertsotan Mundiala,
antzerkian Ghero,
Berri Txarrak bihurtu
zan barri on edo,
Getxoko Islak ere
hamaika jenero.
Horrela izan bedi
astero-astero.*

Martxoaren 8a



Bigarren urtez, martxoaren 8an greba feminista egitera deituta egon ziren indarrean dagoen genero-izendapenaren arabera «emakume» esaten zaizkien horiek. Uribe Kostari dagokionez, oso arrakastatsua izan zen egun horretako mobilizazio nagusia: 7.000 lagun batu ziren Areetako kaleetan. «Bizitzak erdigunean jarriko dituen jendarte-eredu berri bat eraiki behar dugu», aldarrikatu zuten manifestazioaren osteko ekitaldian.

TESTUA: UNAI BREA ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶



*Martxoaren 8a
ta emakumea:
eguneko erronka
ez zen hain xumea...
Galdetzeko probestu
genuen unea,
zer den bizitza eta
zer erdigunea.*

JONE URIA ALBIZURI
Getxo/Algorta

*24 orduko
plantoa planteo
genezakeenontzat ez
al da_alarmantea,
noren esku dagoen
zaintzaren katea
ohartzeko egun bat
aski izatea?*

*Nork ezin du nahita_ere
bere lana utzi?
Protesten nor, zer, nola
behar da erakutsi?
Egun bakarrak nola
gaitzakeen biluzi!
Zer pentsa eman zigun
eta ez da gutxi.*

Korrikaren 21. edizioa



AEK-k bi urtean behin antolatzen duen euskararen aldeko lasterraldia apirilaren 4an abiatu zen Nafarroako Gares herritik, eta hil bereko 14.enean amaitu zen Gasteizen. Tartean, ohi legez, Uribe Kostako bazter ugaritatik igaro zen, eta parte-hartzea handia izan zen berriro ere. Korrika bazetorrela aitzakia, euskarak eskualdean duen osasuna neurtu genuen, euskalgintzako hainbat eragileri galdetuta. Besteak beste, kezka agertu zure erabilera-datuengatik.

TESTUA: UNAI BREA ARGAZKIA: HODEI TORRES ►



*Altsasu, Sare, Eibar,
Bastida, Barrika;
Euskararen herria
abian jarrita.
Emozioak bor-bor,
bihotza irrika.
Hori eta gehiago
da gure Korrika.*

DANIEL DE MIGUEL AVECILLA
Getxo

*Eskuz esku bidean
doa lekukoa.
Aurrera jarrai dezan
ez eman lepoa.
Jantzi dezagun denok
Korrika-petoa,
izan gaitezen herri
euskaldun petoa.*

*Euskaratik, euskaraz
esaten denean,
herri hau sortzen segi
dezagun lanean.
Asea izango dut
bihotz barrenean,
azken kilometrora
heltzen garenean.*

Adingabekoen transexualitatea



Chrysallis Euskal Herria taldeko kideek Naizen Adingabe Transexualen Familien Elkartea aurkeztu zuten 2019ko urtarrilean, Donostian. Bea Sever algortarra talde horretako kidea da eta aldaketa horren nondik norakoez mintzatu ginen beragaz. Chrysallisen lau urteotako bideari errepasoa egin, gaur egun transexualitate-egoeran dauden pertsonen errealitatea aztertu eta elkarte berriaren erronka nagusiez jardun genuen, besteak beste.

TESTUA: IKER RINCON MORENO ARGAZKIA: HODEI TORRES ►



*Hasi ezkeron nire
burua biluzten,
ez naiz guztiz kapaza,
senak ez dit uzten
nire burua zuek
bezala ikusten,
normatiboa denak
ez bainau gorputzen*

MADDALEN RUESGAS RASINES
Berango

*Ispiluaren aurreko
neronen isladan,
gorputzen arauaren
betiko demandan,
nahiz zuri sartzen zaizun
begitik zartadan
problema ez al dago
zure begiradan?*

*Nire burua maita
eta berau zaindu
kanpo-mundu zoroak
ni berri bat zain du.
Askatasun lurrina
nahi nuke usaindu,
krisalida hautsirik
hegalak astindu!*

Gorlizko ospitalearen mendeurrena



Ehun urte igaro dira Gorlizko erietxeak atek zabaltu zituenetik. 1911n eraikitzen hasi ziren azpiegitura hori eta handik zortzi urtera zabaltu, inguruko iodoak eta eguzki-orduek baldintza hobezinak eskaintzen zituztelako umeen hezurretako tuberkulosiari aurre egiteko. Hasiera batean, moja-talde batek zuzentzen zuen osasun-etxea; gaur egun, Osakidetza da beraren arduraduna. Ehungarren urtemuga ospatzeko erakusketa berezia egin du aurten Osakidetza erietxean bertan.

TESTUA: IKER RINCON MORENO ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶



*Kanpora hormigoia
ta gris kolorea!
Gora bista eder ta
kresal zaporea!
Itsasoari adi (buruz)
jartzea ohea
ez al da sendatzeko
aukera hobea?*

KERMAN DIAZ FRANCO
Urruña

*Hurbileko tratu ta
laguntza benetan
-izan lehendabiziko
edo azkenetan-
beti izango duzu,
berdin du zeinetan,
nor bait zure alboan
momentu denetan.*

*Zer zainketa atsegin!
Zer talde trebea!
Beti eman duena
bakoitzak berea,
eta ohartzerako
pasa da mendea
duintasun ta mimoz
artatzen jendea.*

Udako jaiak



Amaitzeaz dagoen urte honetan ere, HIRUKAK ez dio hutsik egin eskualdeko herri eta auzoetan ospatzen den jai-sorta oparoarekiko hitzorduari. Udaren hasieran eta amaieran zenbaki berezi bana kaleratu genuen, lehenengoan jai-egitarauak iragarritz, eta bigarrenetan festetan hartutako argazki onenak erakutsiz. Txupinak, kuadrillak, mozerroak, parranda, jan-edana, kantuak eta dantzak, parte-hartzea, lehiaketak... Bizirik dagoen herriaren taupada dira jaiak!

TESTUA: UNAI BREA ARGAZKIA: HODEI TORRES ►



*Lamiakon jaietan
musu ekainari
San Bernabe Erandion
udako atari
Leioan Doniene
sugarren dantzari
Piter Deuna Sopelan
oporren gidari.*

FREDI PAIA RUIZ
Algorta

*Gero datoz Armintza
ta Larrabasterra
ostean Urdulizen
jaitsiera ederra
Gorliz eta Berangon
egun biko gerra
Algortako jaietan
gaupasa liderra.*

*tzubaltzetaraino
helduta indarrez
gero Portu Zaharrera
kamisoi zaharrez
Plentzian San Antolin
koktelak dandarrez
Hezetasuna eta
Barrikan San Andres.*

Uribe Kostako kirolari olinpikoak, kirolaren gailurrera



Urtez urte eta egunez egun egindako lan gogorrari esker, kirolaren gailurrera heltzeko aukera izango dute Uribe Kostako hiru kirolarik: Virginia Díaz, Higinio Rivero eta Asier García. Lehenengoak lemazain gabeko biko modalitatean arraun egingo du 2020ko Tokioko Joko Olinpikoetan; bigarrenak, aldiz, piraguismoan lehiatuko da, esprint-modalitatean, Joko Paralimpikoetan; hirugarrena ere azken joko horietan ibiliko da, baina saskibaloian, Espainiako selekzioagaz.

TESTUA: IKER RINCON MORENO ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶



*Joko Olinpikoak
datorren urtean
munduko beste puntan
Tokio parajea
kirol epizentroa
bi hilabete
ta bertan bi getxoztar
guztien artean.*

UNAI ANGULO ALDEKOA
Algorta

*Arraunlaria dugu
Virginia, Diaz
Europar txapelduna
izan gendun iaz
umiltasunez doa
baina ausardiaz
ia bueltan datorren
domina jantzia.*

*Piraguismoa izan da
Higinion sostengu
kirola bihurtu du
bere bizimodu
hainbeste urtetako
esfortzu, lan-ordu
emaitza on batekin
borobilduko du.*

Anton Fernandez eta Josu Muruetaren hilketen 50. urteurrena

*Klima-aldaketa ta
kutsadura harira;
eskualdeko zeruak
ez zeukan distira,
gas-isuriketei
auzoak begira.
Garaiko arazoak
gaur berdinak dira.*

GALDER BILBAO MARTINEZ TXAPI
Udondo

*Erandion batu ziren
oihukatuz ozen,
polizia frankistak
tiro eginez zuzen;
Anton egun batean
ta Josu ondoren.
Manifestatzera joan
ta han hil zituzten.*

*Munduan kataklismoa
dena gris ta zikin,
berrogeita hamar urte
eta dena berdin.
Familiak babes gabe
behar dugu jakin.
Ginena gara eta
ahaztu ez dadin.*

36ko gerraren atzeguardia eta frontea, Berangon irudikatuta



Lur-zakuak, kanoiak, metrailadoreak, morteroak, kanpaina-ospitaleak, errefuxiatutako umeak... Gerra-garaian murgildu zen irailaren 23an Berangoko elizaren ingurua, 1937ko ekainean bizi izandakoak birproduzitu. Udalerriko Burdin Hesiaren oroimenaren Museoaren zazpigarren urtemuga ospatzeko ekitaldia izan zen hura, eta hainbat elkartek parte hartu zuten, hala nola Frentes de Euzkadi eta Lubakikoak taldeek.

TESTUA: IKER RINCON MORENO ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶




*Hogeita hamazazpiko
ekaina buruan,
Burdinazko Hesian
genbizan guduan;
frontea hor egoan
Jata inguruan
eta erretagoardia
Berangon genduan.*

PERU DE PEDRO LARREA
Gorliz

*Gudari, ertzain, apaiz,
kanoi eta bala,
Berangon jarri eben
kanpaina-ospitala;
errefuxiatuak
makal ebizala,
geroz ta gertuago
faxisten itzala.*

*Ezin geinke ahaztu
iragan ankerra,
lurpean ezkutatu
bailitzan bunkerra.
Burdinazko Hesiari
kenduta ugerra,
eukiko dogu beti
akorduan gerra!*

Immigrazioa Uribe Kostan, mitoak eta errealitateak



*Alde egin beharra,
ihesa, hejira:
bizitzan kokatzea
aurrera begira.
Ez da zifra aldatzea
hirutik zazpira,
zenbakien atzean
pertsonak badira.*

NAROA TORRALBA RODRIGUEZ
Larrabasterra

*Gure asabek maletak
egin bazituzten,
zergatik ez dugu hau
antzera ikusten?
Esamesak isildu
beharrean, puzten...
etxea ez du inork
borondatez uzten!*

*Ez da diruz ordaintzen
sarri ikaspena;
aberatsa da oso
haien almazena.
Jakin inori jarri
aurretik kondena:
begiei begiratzuz
konpontzen da dena!*

Plentziako ontzi-amarralekuen berrantolaketa



Ontzien amarralekuak berrantolatzeko plana aurkeztu du aurten Eusko Jaurlaritzak, eta berehala zabaldu da herrian asmo horiekiko desadostasuna, «proiektuak ingurumenean kaletak eragin ditzakeelako, itsasadarra pribatizatzea ekarriko lukeelako eta ekarpenak egiteko aukera egon ez delako»; aldekoak ere badaude, hala nola Proa elkarteko kideak. Udalak, orain, esan du kontra dauden norbanakoakaz bilduko dela euren ezineguna Jaurlaritzari helarazteko.

TESTUA: IKER RINCON MORENO ARGAZKIA: HODEI TORRES ►



*Amarralekuak du
hutsune bat berez,
baina agertu dira
hamaika interes,
ta SOS Itsasadarrak
ondo dionez:
berrantolaketa, bai,
baina horrela ez!*

UNAI MENDIBURU VALOR
Algorta

*Aurreikusten dira
hamaika problema,
kaltetuaz jabeak
ta ingurumena.
Ahaztea omen da
aukera onena...
baina eskatu gabe
inori baimena!*

*Pribatizazioa
bultzatzen dabiltza;
berdin EKP edo
Eusko Jaurlaritza.
Gero nola ezarri
hainbeste baldintza,
ez badute entzuten
herriaren hitza?*

Joseba Santxo • Naroa Torralba ALBEren zuzendaritzako kideak

«Beharbada bertsolaritza salbatu dute bertso-eskolek»

UNAI BREA ►

Datorren urtean 40 urte beteko ditu ALBEk. Zelan zabiltzate osasunez? JOSEBA SANTXO: Zifra biribila da 40, eta biribil ospatzeko asmoa daukagu, ez bakarrik urteak betetzearen poztasunagatik, baita gure osasuna oso ona delako ere. Piramide baten modura irudikatzen dugu. Osasun ona izateko, piramidearen oinarriak zabala izan behar du, eta hori badugu: eskolak ematen ditugu hainbat ikastetxetan, udalerrri-mailan... Hurrengo geruza martitzenetako eskolak esaten diegunak dira, bat-batean jarduteko taldeak. Eta ondoren dator bertsolari bihurtzea eta plazetara irtetea. Bertsozaleen oinarri zabaletik ateratzen dira ikasleak, eta haien artetik bertsolariak.

Iaz Argia Ereiten Euskara Saria eman zizuen Getxoko Udalak, eta ekitaldian behin baino gehiagotan aipatu zenituzten zuen hastapenak, 1980an. Ez dakit orduko giroa bertsolaritzarako hobe zen oraingoa baino. J.S.: Franco hil eta gero euskararentzako eta euskal kulturarentzako goraldi moduko bat egon zen. Presentzia kalean, gauza berriak egiteko nahia, irakaskuntza... Egoera oso aldekoa zen euskararen inguruko ekimen guztietarako, baina 1980an, gainera, bertsolaritzarentzat *plus* bat egon zen: Xabier Amurizak bere lehenengo txapela irabazi zuen, eta ideia berri bat ekarri zuen. «Lagunok, bertsolariak ez du derrigorrez baserrian sortu behar, bertsolaria eskolatu egin daiteke». Ideia horretatik bertso-eskolak sortu ziren, eta ALBEren kasuan sorrera hori oso naturala izan zen. Gaur egungo egoeragaz alderatuta, guk paralelismoa ikusten dugu, oraingo giroa ez delako ordukoa bezain politikoa, baina badago iraultza moduko bat; euskararen erabilerak duen garrantziaz ohartu gara, eta hori suspertzeko hainbat ekimen dago. NAROA TORRALBA: niri iruditzen zait 80ko hamarkada oso garrantzitsua izan zela euskalgintzarako eta kulturgintzarako, baina Maialen Lujanbiok esan zuen bezala, transmisioa ez da beti goitik beherakoa, behetik gorakoa ere izan daiteke. Ildo horretan, uste dut bertsolaritzak gazteak erakarri dituela haientzako lekuak sortu direla, eta gaur egun dugunerako bul-tzada handia izan dela hori.

Bertso-eskolen agerpenak asko aldatu du bertsolaritza? N.T.: Beharbada esan beharko genuke bertsolaritza salbatu dutela bertso-eskolek. Bertsoa oso leku eta egoera konkretuetan finkatuta zegoen, eta eskolek apur bat demokratizatu zuten bertsolaritza, esanez edonork ikas dezakeela bertsotan. Ikusi da emaitza, begira nortzuk diren txapeldunak, finalistak... Eta ez goi-mailan bakarrik, edonork egin dezake bertsotan etxe azpiko tabernan. J.S.: guztiz ados. Bertso-eskolak kenduko bagenu, denbora laburrean bertsolaritza erakusleihorako zerbait bihurtuko litzateke, eta horrek ez luke bide luzerik egingo.



Bertso-eskolek eutsi diote transmisioari eta bertsolaritzaren arimari, ALBEko kideen ustez. HODEI TORRES

Piramidea

«Bertsozale oinarri zabala dugu; hortik ateratzen dira ikasleak, eta ikasleen artetik, plazetara joaten diren bertsolariak»

Demokratizazioa

«Bertso-eskolek apur bat demokratizatu zuten bertsolaritza, esanez edonork ikas dezakeela bertsotan; horren emaitza ikusi dugu»

Benetako esentzia, transmisioarena, bertsolaritzaren arimarena, bertso-eskoletan dago. Han batzen dira gaztetxoak, ez hain gazteak eta helduenak, eta gune horretantxe gertatzen da transmisioa, lehen baserrietan gertatzen zen bezala.

Uribe Kostan gaztelania da nagusi, eta batez ere gazteenen euskara oso kaskarra dela aipatzen da sarritan. Badirudi, ordea, bertsolaritza salbu dela horretaz, edo behar lukeela behintzat. Zer uste duzue? J.S.: Amurizak esan zuen euskara salbatuko bada, eta batzuetan ez gara ohartzen oraindino arriskuan dagoela, asko eskastuko dela. Hori onartzeko prest egon behar dugu. Egia da, ordea, plazan dabilen bertsolariak maila ona duela, etengabe ibiltzen baita hizkuntzagaz jolasean; hizkuntza da zenbat eta gehiago erabili orduan eta zorrotzago dagoen lanabes bakarra, eta bertsolaritza, alde horretatik, zorrotzarria da. N.T.: bestalde, orain bizi-bizi dago batuaren eta euskalkien arteko eztabaida. Batzuen ustez batuaz jarduteak hizkuntzaren kalitatea apaltzen du, baina Uribe Kostan frogatu dugu bertsotan oso ondo egin daitekeela batua erabilia. ◀

Gatz-ozpinetan Izei Azkue

Gabonetarako plater proposamen bi

Gabon-egunak ez dira nire urteko garairik gustokoenak; hala ere, esan beharra daukat ospakizun horiei esker sukaldaritzan trebatzeko aukera paregabea izan dudala, askotariko platerak egiten ikasi baitut etxean izan dudan irakasle bikainari esker: nire ama.

Gabonetan esan ohi da gehiegi jaten dugula eta nire familia horren adibide argia da. Sukaldaria naizen heinean, zorte handia izan dut ama ondoan izateagatik, beraren jakintzatik asko ikasteko aukera izan baitut urte urte garaiotan. Txiki-txikitatik ikusi dut ama, sukaldean, su artean, Gabonetako otorduak prestatzen; eta berari esker, esan beharra daukat, sukaldaritzaren munduan murgildu eta horretan trebatzeko aukera izan dut. Artikulu honen bidez, nire amak prestatutako plater bi aurkeztuko dizkizut, zuri, irakurle; eta noski, baita horiek egiteko eman beharreko pausoak ere, ez larritu!

Nire etxeko Gabonetako plater esanguratsuenak, eta arrakastatsuenak ere bai, arrain-zopa izan da beti; denbora luzea behar da egiteko, baina mimo eta kontu handiz eginda, emaitza paregabea da. Gaur egun, ordea, hori alde batera utzi dugu, arrainek ekar dezaketen anisakis parasittoa dela eta; ez beldurragatik, baizik eta alergiagatik. Hala, etxeko menua aldatu behar izan dugu etxean, amak ezin duelako arrainik jan. Dena dela, aurreko urteetako prestaketa bi egiteko eman beharreko pausoak azalduko ditut lerrootan; itsasotik gertu bizi garela, kresalaren munduari zelan atarramenturik ez atera. Etxean haragi-plater nagusi bat ere egin ohi genuen, baina ez diet garrantzirik emango, plater nagusiak hurrengo hauek izan ohi direlako: bakailaoa pil-pil eta bizkaitar erara, muxilak saltsa berdean eta intxaur-saltsa. Azken horren errezeta, postrearena, aurreko HIRUKA batean topa dezakezue, Gabonetako berezi batean baita ere. Kontuak hala, plater nagusi bien nondik norakoak azaltzeari ekingo diot.

BAKAILAOA PIL-PILEAN. Plater hau prestatzen hasteko egin behar dugun lehenengo urratsa, nola ez, bakailao-puska on bat erostea da. Beste gauza garrantzitsu bat erabiliko dugun oliba-olioa da; askok diote olio gogor batekin ez dela pil-pila ondo ateratzen, baina hori mito hutsa baino ez da. Hala ere, olio leun bat erabiltzea gomendatuko nuke nik, arrainaren zaporeari aurre ez egiteko eta hori mantentzeko. Plater hau prestatzeko, Rondo motako lapiko bat beharko dugu, dena ondo mugitu ahal izateko. Baina halakorik ez daukagunok paella-ontzi txiki bat erabil dezakegu, edo heldulekuak dituen bestelako eltzeren bat ere. Olio nahikotxo erabili behar dugu, bakailaoa ia-ia osorik estali arte, edo behintzat bakailaoa erdi estalita egon arte (atzamar baten altuera). Hasteko, berakatza zuritu eta oliotan konfitatuko dugu, oso su baxuan, piperminarekin batera. Behin konfitatuta, oliotik aterako dugu eta bakailaoa



Bakailaoa pil-pilean

Bakailaoa, berakatza, oliba-olioa eta piperbeltza.



Muxilak saltsa berdean

Muxilak, arrain-salda edo ura, berakatza, irina, ardo zuria eta perrexila.



kozinatzen hasiko gara. Kontu handiz egin beharra dago, su baxuan; ezin dugu pil-pila presaka eta arin egin. Nire amak behinola erakutsi zidan trikimailua azalduko dizuet orain: bakailaoa azala gora duela egingo dugu eta sardexka batekin azala sastatuta, berau ondo sartzen dela ikusten badugu, orduantxe jakingo dugu bakailaoa ondo eginda dagoela. Garrantzitsua da lapikoa etengabe mugitzen egotea, mugimendu leunak erabilia, arrainaren gelatina ondo ateratzeko; bestela ezinezkoa izango da saltsaren emultsioa lortzea. Azkenean, bakailaoa eginda dagoenean, alde batean utziko dugu eta pil-pila sortzen hasiko gara.

Adi! Olio oso bero dagoenean ez dugu ezer lortuko; hartara, apur bat itxaron hori hozten den bitartean. Den-dena ondo loditzeko (pauso honetan tradizioari eta usadioari barkamena eskatu beharko diegu) iragazki baten laguntzarekin olio eta bakailaoaren gelatina emultsionatuko dugu. Zenbat eta mugimendu gehiago, orduan eta saltsa lodiagoa lortuko dugu. Amaitzeko, bakailaoa ontzian sartu berriro ere, pil-pil saltsaren gainean, eta piperbeltz eta berakatzarekin apainduz amaituko dugu platera.

MUXILAK SALTSA BERDEAN. Saltsa berdea egiteko gomendagarria da *fumet* edo arrain-salda bat izatea; edonola ere, halakorik ez izanez gero, egiteko modua aldatu eta oso emaitza ona lor dezakegu. Salda izanda saltsa berdetik hasiko gara. Horretarako, berakatza zati txiki-txikitan ebakiko dugu. Zati-txook oliotan erreko ditugu eta urre-kolorea daukatenean irinkoilarakada bat botako diogu denari, *roux* deituriko nahasketa eginez. Ondoren, salda gehitu behar zaio denari, eta aurrekoarekin ondo nahastu, bexamel bat egingo bagenu bezala. Nahi izanez gero ardo zorrotada bat ere bota dezakegu arrain-salda gehitu aurretik. Botako dugun salda norberaren gustuaren arabera izango da; hau da, zenbat eta salda gehiago orduan eta saltsa likidoagoa izango dugu. Azkenik perrexila eta muxilak gehituko ditugu eta horiek ireki arte kozinatuko dugu, su ertainean. Lehen esan bezala, arrain-salda edo *fumeta* ez badugu, muxilak aparte kozinatu ditzakegu uretan, eta ur hori arrain-salda modura erabili dezakegu saltsa berdea egiteko; bizi-tza honetan den-dena aprobetxa dezakegu osagaien saihebsideak aurkitzeko eta emaitza berdina, edo antzekoa, lortzeko.

Gabonak gertu ditugu, baita horiekin batera dauden otorduak ere. Horietarako ideiarik izango ez bazenu, hona hemen aukera bi; espero dut artikulua lagungarria izatea horretarako. On egin eta urte berri on! ◀

Zure otorduetarako «mapa»: zer e

Juan Mari harategia

Tel: **944 644 125**

Mesedeetako Ama, 31

AREETA



Labean egiteko artxoa

OSAGAIAK: Artxoa, berakatzeta eta Modenako ozpina.

ESKAINITZA: Bazkari, afari eta oturuntzen garaiak dira Gabonak. Hala, normalean jaten ez diren jakiez gainezka egon ohi dira gure mahaiak egunotan, familia eta lagun artean horietaz gozatzeko. Urtez urteko hitzordu horiei aurre egiteko, premiazkoa izaten da lehengaiez hornitzea, eta horretarako aukera paregabea eskaintzen du Areetako Juan Mari harategiak. Urte osoan eskaintza zabala izaten dute, baina garaiotan produktu gehiago izaten dituzte aukeran. Hala, denetarik aurki daiteke bertan: foie-ak, ahuntza, txerrikumea, kapoia, indioilarra, pularda, eperra, fisaia, ahatea, Alaskako izokina, Frantziako kabiarrak eta askotariko okelak. Orriotara artxoa ekarri dugu, eta honela prestatzeko gomendatu digu Juan Mariko arduradun Itxaso Zelaia: lehenik eta behin ordubete eduki uretan, berakatzagaz, eta ondoren azpilean ipini eta labean sartu, 180 gradutan, hiru ordu laurden artxoaren saihesta gorantz begira eta beste hiru ordu laurden beherantz, uragaz eta Modenako ozpinagaz.

ERRESERBAK: Beharrezkoa ez den arren, gordetzeko eskatzea gomendatu dute.

Gorrondona

Tel: **944 076 918**

Areatza, 54

PLENTZIA




Idi-buztaneko paella

OSAGAIAK: Arroza, idi-buztanaren okela (papurtuta), piperrada, gatza. Saltsarako: ardo beltza eta barazkiak (piper berdea, azenarioa, berakatzeta...).

ESKAINITZA: Sei urte daroaz zabalik Gorrondona jatetxeak, Plentziako kaiaren aurrean, Gorlizegaz muga-muga egiten. Neguan ez dute afaririk ematen aste barruan, baina gainontzekoan oso ordutegi zabala daukate, «sukaldaria dagoen bitartean», Aitor Agirre ugazabak dioenez; «eguerdiko 12:00etan ere jan daiteke». Gorrondonako kartaren produktuetan paellak nabarmentzen dira, eta horiexek dute arrakasta handiena. Berbarako, goiko argazkian ageri den idi-buztanekoa. Paella modu arruntean egin ostean, buztanaren saltsa botatzen diote gainetik. Bizpahiru lagunek jateko moduko paellak egiten dituzte, baita enkarguz ere, «bezeroak eskatzen dituen osagaiakaz». Kartakoetatik, idi-buztanekoaz gainera, boletus onddoakaz egindakoa da deigarriena. Besteak baino garestixeagoa da hori: 22 euro (gainontzekoak 18-19 euro bitartean saltzen dituzte). Baina badago paellaz besterik: zartaginekoa, Thate saltxitxakaz egindako platerak, fideuak...

ERRESERBAK: Ez da beharrezkoa aurrez erreserbatzea, baina kontuan hartu beharrezkoa da paella egiteko hoge minutu behar dituztela, momentuan prestatzen dute eta.



ta non jan

Euskaldunok berezkoa ei dugu bapo jateko elkartzeko sena, zer esanik ez urteko akabuko egunotan. Etxetik kanpo ere bikain jan daiteke Gabonetan, eta horretarako eskaintza zabala dugu Uribe Kostan. Hona hemen gure gomendioak.

Zurikaldai Neguri

Tel: **944 911 487**

Neguri hiribidea, 9
NEGURI



Askotariko turroien tenplua

OSAGAIK: Gorringo eta txokolatekoa, sokonuskoa eta intxaurrezko turroiak.

ESKAITZA: Gabonak ate joka ditugu eta daborduko Neguriko Zurikaldai gozo-dendak pastel, gozo eta turroiz gainezka ditu mostradoreak; Karakas, gorringo eta txokolatezkoa, gorringo bikoitzekoa, Koñak, Cádiz... Turroiak ekarri ditugu oraingoan orriotara, Getxoko auzo horretan duten obradorean bertan egiten baitituzte produktu paregabeak. Askotarikoak dituzte, den-denak arbendola, azukrea eta txokolatea erabilita eginda-koak. Eskaintza osotik, sokonuskoa da tipikoena, «oso ezaguna da Bizkaian, Mexikoko kakao berezi bat daramana». Zatika saltzen dute hori (baita beste turroi denak ere), pieza arruntetan edo norberak gura duen tamainan; 47 euro kiloak. Horiez gainera, bes-telako hamaika aukera ere eskaintzen ditu Neguriko metro-geltokiaren ondoan dagoen gozotegi honek, hala nola ohiko txokolate-tarta, mustafá eta San Markos. Errege Egunari begira, nola ez, errege-opilei dedikatzen diete denbora gehien, «izugarria da garaiotan, pilo bat saltzen ditugu, martxora eta apirilera bitartera arte ere!».

ERRESERBAK: Eskaera bereziak egin daitezke, betiere denboraz eginda.

BASERRIKO
denda

LANTZARTE AUZOA, 13 BERANGO
BARRIO LANTZARTE, 13 BERANGO

699 81 12 89

SERVICIO A DOMICILIO
ETXERAKO ZERBITZUA

SERVICIO A COLECTIVIDADES, TXOKOS Y GRUPOS DE CONSUMO
KONTSUMO TALDE TXOKO ETA KOLEKTIBITATEI ZERBITZUA

Baserriko sasoiko produktuak
Productos de caserío de temporada

Produktu ekologikoak
Productos ecológicos

Goi-mailako produktuak
Productos selectos y gourmet

Valentziako zitrikoak
Cítricos valencianos

Sasoiko fruta ekologikoak
Frutas de temporada ecológicas

Opari egiteko otzaran-egokituak
Cestas de regalo personalizadas

Produktuak Km0
Productos Km0

Gure Etxea

Tel: **944 636 880**

Aurrezki Kutxa, 14
ITZUBALTZETA/ROMO



Zizahori nahaski trufatua

OSAGAIK: Zizahoriak (*Cantharellus cibarius*), arrautzak, berakatza, tipula gorria, ardo zuria, olioia, gatza eta trufa beltza.

ESKAITZA: Aurkezpenerako tarterik behar ez duen tabernetakoa da Gure Etxea; nork ez du ezagutzen Itzubaltzeta/Romoko erdigunean dagoen establezimendu horrek egiten duen sasoi-sasoiko sukaldaritza tradizionala? Betiko legez, oraingoan ere mimo handiz egindako eskaintza bat ekarri digute orriotara: zizahori nahaski trufatua. Hamazortzi euroan goza daiteke denboraldiko plater gozo horretaz. Hala ere, askotariko eskaintza izaten dute: mota guztietako itsaskiak, erreboiloa, bisigua, zapoa eta bisigu ahogorria. Gabonei begira, gainera, gogoratu dute enkarguzkoak ere prestatzen dituztela, primera-ko platerak etxera eroateko; masailak eta bakailaoa, besteak beste. Mokadu eta pintxoz betetako barra ere eskaintzen du tabernak, baita intimitatea bilatzen dutenentzako zortzi lagunentzako txoko berezia ere. Arduradunak azaldu duenez, eskaera handiko gunea da hori; beraz, adi ibili!

ERRESERBAK: Aldez aurretik erreserba egitea gomendatu dute, astebeteko edo hamar eguneko aurrerapenagaz. Izan ere, lekua azkar betetzen da egunotan.

herriko taberna

Afariak 20:30tik 23:30ra
Ostegun, ostiral eta larunbatetan.

Gosariak
Astelehenetik ostiralera

Sabino Arana 82, behea Elexalde-Leioa

Txiberri Edantokia

Tel: **946 760 715**

Aita Gotzon, 4

URDULIZ



Hiru geruzako sandwicha

OSAGAIAK: Pernila, arrautza egosia, letxuga, maionesa, atuna, piper gorria (mina edo ez), antxoak eta moldeko ogia.

ESKAINITZA: Berezia da Urdulizko Txiberri taberna, edo, zehatzago esanda, edantokia, hainbat arrazoiengatik. Alde batetik, bere historia oparoagatik: aspaldi ireki zuen, etxea eraikitzeagaz batera izan ere, gaur egun negozioa kudeatzen dutenen Brotons familiako kideen aitatak, joan den mendeko 30eko hamarkadan. Eta sasoi hartan usadioa izaten zen legez, taberna ez ezik janari-denda ere bazen Txiberri. Gaur egun ere janaria etxera eramateko aukera ematen du, baina sabelean sartu ostean; eta ez edozelan-go janaria, gainera. Pintxoak dira bertakoen espezialitatea eta tabernak duen ospearen arrazoietak bat, goiko argazkian ikus dezakezuen esate baterako. Hiru geruzako sandwicha da, goikoan pernila, arrautza egosia eta maionesa dituen; erdikoan atuna, letxuga eta maionesa gehiago; eta behean antxoa eta pernila. Piperra ere gehitzen diote, batzuetan mina eta beste batzuetan ez. Pintxo sinplea da adibidekoa (ez horregatik eskasagoa), baina badituzte barran bestelako aukerak ere, tipikoak eta ez hain tipikoak. Eta bazkalordu eta afalorduetan, ogitartekoak gehitzen dizkiote barrako eskaintzari. Hori, asteko egun denetan. Jateagaz batera, kirola egiteko aukera ere ematen du Txiberrik, beste ezaugarri berezi bat dela medio: taberna eraiki eta hurrengo urtean hari itsatsita egindako pilotaleku partikularra. Urdulizko lehengo frontoia, bertakoen esanetan.

ERRESERBAK: Pintxo eta ogitartekoez gain, taldean gozatzeko bestelako otordu-mota batzuk ere egin daitezke Txiberrin, eguerdiz zein gaeuz, aldeztu aurretik eskatuz gero: plater konbinatuak, indaba-janak...



Motagane

Tel: **944 670 007**

Leioa-Unbe errepidea, 34

GOIERRI-ERANDIO




Barraskiloak saltsan

OSAGAIAK: Etxeko piper txorizeroa eta tipula gorria, pernila (urdaiazpikoa) eta barraskiloak.

ESKAINITZA: Garaiotako eta inguru honetako ohiturari helduta, aurtan ere barraskiloak saltsan eskainiko ditu egunotan Erandioko Goierri auzoan, Akarlana parkean dagoen Motagane Txakolina jatetxeak. Inguruko produktuek egindako indabak ere prestatuko dituzte, eta aurtan, berritasun modura, txerria erosi eta hiltzera eroan dute; harengandik ateratako odolosteak, saiheztasun egindako porrusaldak... emango dituzte, produktua agortu arte. «Kilometro zero» filosofia dute ardatz: etxeko edo inguruko ortuetako produktuek erabiltzen dituzte, sasoi-sasoiok. Gainera, orain dela hamalau urte hasi ziren txakolin-eskaintza berezia lantzen, luzaroan edari horrek izan duen ospe txarra gainditu eta XVIII. eta XIX. mendeetan etxean egindako txakolina saltzen zuten baserri omenaldia egiteko. «Txakolinagaz lotsatuta ibili gara, garratza zela, ez dakit zer zela...», dio Oier Kamiruaga Motaganeko ugazabak, «bakarra egoten zen tabernetan, erdi ezkutatuta, eta inor ez zen horretan espezializatzen». Ospea berreskuratu duen edari hori «ahaldundu» dutela aldarrikatu du Kamiruagak. Izan ere, barran ez ezik, marka berezietako botilak ere saltzen dituzte tabernan bertan duten ardandegitxoan.

ERRESERBAK: Bazkariak ematen dituzte Motaganen, 13:00etatik 16:00etara aste barruan eta 14:00etatik 16:00etara aste-akabuan, baina edozein egunetan afaltzera joan daiteke aurretik erreserba eginez gero, gutxienez hamar laguneko taldetan betiere.

www.txakolimotagane.com



Goxo Break dastalekua

Tel: 946 763 112

Gatzarriñe, 14-A
LARRABASTERRA



«Buongiorno» tostada

OSAGAIK: Ogi txigortua (xerra bat), oliba-olio birjina, tomate birrindua, tomateak xerratan, ahuakatea eta gatz beltzeko petaloak.

ESKAITZA: Abendu honetan lau urte bete dira Aratz Hormaetxeak Goxo Break zabaldu zuenetik Larrabasterrako Urgitxietan plazan («eta ez gara frankizia bat, jendeak askotan hala pentsatu arren», argitu dute), dastaleku tradizionalen edo, bestela esanda, «Inglaterra *bakery*-en» bertsio gaurkotua sortzeko asmoz. Hasiera-hasieratik, gosarietan espezializatzeko asmo garbia izan zuten, eta lortu dutelakoan daude. Azaldu dutenez, gosari-karta oparoa dute, hamazazpi ezohiko aukera eskaintzen dituen, urteko egun denetan. Gehien-gehien oinarria ogi-xerra txigortuak dira, tostadak alegia. Esandakoaren primerako adibidea da orrialdeotara ekarri duguna, *Buongiorno* izeneko, eta diotenez karta oso arrakastatsua. Ogiaren gainean birrindutako tomateak du, baita xerratan ebakitakoa ere, eta goi-goian ahuakate-zatiak; oliba-olio birjina da ezinbesteko beste osagarri bat, eta gatz beltza ere gehitzen diote. Zapore-konbinazio bikaina, kafe on bategaz (oso ondo prestatzen dute Goxo Breaken) egunari hasiera emateko. Eta hori, gogoratu, kartan dauden hamazazpi aukeretako bat baino ez da. Aipatzeko modukoak dira, era berean, fruta- eta jogurt-katiluak, baserriko arrautzak egindako nahaskiak, arrautza frijituak hirugiharraz.... Jakina, pintxo tradizionalagoak eta gosalatzeko ohikoak izaten diren beste jaki batzuk ere badituzte, eta ugari gainera: opilak, croissantak, patata-tortillak, ... «Hemen, eguneroko produktuei, kafeari eta ogiari esate baterako, merezi duten protagonismoa ematen diegu», aldarrikatu dute Goxo Breakekoak. Izan ere, okindegia dute dastalekuaren barruan, ogia eta pastelak saltzeko; eta eskaintza guztiz osatzeko, prentsa-saltokia ere badaukate.

Eskarrra taberna-itsaskitegia

Tel: 688 776 003

Torreña kalea, 1
ALGORTA



Itsaski-errazio fresko-freskoak

OSAGAIK: Ostrak, nekora egosiak, izkira egosiak eta *zamburiña*-k plantxan.

ESKAITZA: Algortako erdiguneko txoko hau txikia bada ere, handia da bere eskaintzaren kalitatean. Itsaskien tenplu bilakatu da Eskarra taberna; izan ere, zerbitzariak plantxaren eta egosketa-puntuaren maisuak dira. Hala, lokal horretan nork bere gustura dasta ditzake magurioak, *zamburiña* galiziarak, zigalak, lanpernak, olagarroa, izkirak edo *quisquillas* eta Britainiako Mont-Saint-Michel badiatik ekarritako muskuluak edo *moules*, besteak beste. Aste-akabuetan, gainera, txangurruak egiten dituzte, bezeroek zuzen-zuzenean jateko. Era berean, arrakasta handikoak dira azkenaldian prestatzen dituzten zapo eta otarrainxken broxetak. Bertakoek diotenez, bezeroek marisko-jan txiki batez goza dezakete tabernan, zuzenean, diru askorik gastatu barik, ardo batek eta gertukoek lagunduta. Izan ere, Eskarrako zerbitzariak ardo zuria gomendatzen dute itsaskiak ezkontzarik gozoena egiteko: ardo-eskaintza zabala daukatenez, aukera daiteke Verdejo, Galiziako Godello eta Albariño, bertoko txakolina... Norberak gustukoen aukeratu. Gabonak gertu ditugula aprobetxatuta, gainera, egunotako hotzari aurre egiteko itsaskien salda gomendatu digute Eskarrakoek, gozoa bezain beroa. Horrez gainera, gogoratu digutenez, garai hauetako bazkari eta afarietarako, edo edozein egunetarako, edozein itsaski presta dezakete enkarguz, etxera eroateko. Horretarako interesa dutenek alde aurretik dei dezakete tabernara, gura duten mokadua tabernara joatean prest izan dezaten. Hala ere, horretarako aukera ere izango dute txoko horretara hurbilduko direnek; ardo fresko bategaz zintzurak bustitzen dutenei, ziur asko, begitik sartuko zaie itsaskiren bat etxera eroateko.



hirigintza • arkitektura • ingenieritza zibila

Basagoiti etor. 69 - 1.solairua ALGORTA

www.estudiok.es

@Estudio_k



4BIDE PINTURAK

mugarik gabeko koloreak

- Pintura eta berniz lanak
- Paper margotuak
- Zoruak

Loroño, 2 SOPELA • 94 676 29 92 • 4bidepinturak@gmail.com

Egiozu opari eder-ede

Besteentzat beste edo gehiago, zuretzat ere bai. Hau, hori edo hura opari egitea, luze edo labur zer gurako du(t)en edo beharko du(t)en pentsatzeaz gainera... Eta «du(t)en» baino «dudan» galdetuz gero? Aukeran...

HIRUKA ►

Askok euren buruak apaintzeko aprobetxatzen dituzte egun hauek: ilea orraztu, moldatu, garbitu, ebaki, atondu, tindatu... Denak balio du Gabon-egun hauetako afarietan edo bazkarietan lirain agertzeko. Batzuek sasoi honetan baino ez dute aukera aita-amakaz, neba-arrebakaz, seme-alabakaz, ilobakaz, lagunakaz... egoteko. Txukun agertzea izan ohi da egokiena; «txukun» norberaren arabera izanda beti ere... Baina besteek zutaz zer pentsatzen duten alde batera utzita, erabat zilegi da gorputza eta arima alaitu ahal dizkizuten opariak zeure buruari egitea: zuk zeuk zeure burua osasuntsu, ondo, eder ikustea da garrantzitsuena.

OHITURA OSASUNGARRIAK. Egun hauetako otorduakaz lotuta, ohiko hutsegitea da bazkari edo afarira heltzea ordu askoko barauagaz. Bada, gehiegikeria saihestearen ordez, erraztu egiten du. Horregatik, oparoa izan daitekeen otorduren aurretik, onena da egoki gosaltzea eta, are gehiago, mokadu arina hartzea otordua baino lehen (ahal dela frutagaz) gosea eta antsietatea murrizteko. Izan ere, jaiak gozatu eta ospatzeaz gainera, mahaikideakaz eta otordu eder-rakaz ondo pasatu eta atsegin har dezakegu. Eta, zer esanik ez, alkohola edango baduzu, neurrian hartu, gehiegikeria barik, are gutxiago autoa gidatzea egokituko bazaizu ondoren. Ez ahaztu biharamunean ere argituko duela egunak.

MC
peluquería
ileapaindegia

No bedadeak!

Gorputz eta aurpegi-tratamenduak
Depilazioak: hotza, beroa eta laser

946 774 147 • Erribera 23 • **PLENTZIA**

hasteko
zero plastiko

623 19 57 99
Algortako etorbidea, 61, 48991 GETXO

OSABIDE
Hortz-Klinika
Arantza Etxebarria

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behea eskuina • ALGORTA

944 307 696

rra zeure buruari ere



Roke Deuna 25 - Getaria. T. 943.140.143 www.siaazgetaria.com

XV. mendeko dorretxe gotikoa!

HIRUKAren parte bihurtu dira, erreportajeak edo elkarrizketak bezainbat, aspalditik proiektu hau babesten duten iragarleak. Hona hemen, gure esker onagaz bateraz, omenaldi xume bat.

**Kalitatezko
irakaskuntza
euskaraz**

Artaza auzoa, 84.48940 LEIOA
94 464 23 64 / 94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net




nire aitaren etxea defendatuko dut

ERROMON
1977. ETIK

GURE
ETXEA
taberna


Carja de Ahorros, 14 | Rono-Getxo | T. 94 463 68 80




JUAN MARI

Harategia Urdaitegia


Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25



Gremioak



Optikak




Moda



Ileapaindegia



Klinikak



Prensa




Gasolindegia



Auto-tailerrak



Elkartek



Estankoak



hirukalagunen txokoa

Parte hartuz, sari eder

Uribekostarren ekarpenari esker egin du bidea HIRUKAk, eta halaxe egingo du hemendik aurrera ere. Egin zaitez HIRUKAlagun eta beheko produktuen zozketan parte hartu ahal izango duzu; eta daborduko baldin bazara, lerro hauen alboko argibideei jarraitu besterik ez daukazu!

Beheko sariren bat lortzeko zozketan parte hartu gura baduzu, abenduaren 20a (barikua) baino lehenago bidali zure izena eta harremanetarako bidea hiruka@hiruka.eus helbidera. Adierazi, mesedez, zein sari irabazteko parte hartuko duzun.




Karolaren itsaskiak

Itsaski-jan dotoreaz gozatuko duzu Karola jatetxean, Algortako Portu Zaharraren erdi-erdian.



Oveja Creativaren liburuak

Martin eta Learen abentura zoragarriez gozatu ahal izango dute etxeko txikiak.



Cerebrito Perezen Kataminoa

Blokeak erabilia puzzleak osatuz primeran pasatuko dute 3 urtetik gorako umeek, baita ondo gorakoek ere.



Goxo Breaken errege-opila

Goxo Break dastalekuaren eskutik sari bi dakartzagu: errege-opil gozoa eta lagun birentzako gosari ederra.

Arak esku-eskura!



Arbiren liburuak

Arbi Liburuak sei liburu eder dakartza zozkatzeko, hirunakako multzo bitan.



Bogaren garagardoak

Primerako garagardoa egiten dute Bogan, sorta oso bat dugu zuretzat.



Marsun ileapaindegia

Familia oso batentzat (heldu bi eta ume bi) ile-mozketa dotorea irabaz ezazu.



Maitiaren jertsea

Arrasateko Maitia dendak emandako Olazti izerdi-jertsea, egundoko saria!



Ibaizabalen liburuak

Umeentzako liburu-sorta eder hau eskuratzeko aukera ez galdu.



Hasteko: kit dotorea

«Zero plastiko» filosofiari helduta bizi gura baduzu, hauxe da behar duzuna.

Aurrera goaz

Amaitzear dagoen urteari ekin eta oso gutxira, euskarazko komunikazio-proiektu honi babesa agertzeko ekitaldia egin genuen Algortako Portu Zaharrean. Orduan adierazi genuen guretzat «hil ala biziko urtea» izango zela 2019a; egoera latza zen, eta erabaki gogorrak hartu genituen aurrera egin ahal izateko. Azaroaren 16an antolatu genuen HIRUKA Egunean, berriz, proiektu hau oraindino irauteko moduan dagoela aldarrikatu genuen. Harrotasunez, baina zuhurtziaz.

Izan ere, orain dela urtebete larrialdi gorria zena ez da bat-batean loraldi bihurtu. Zailtasunez eta oztopoz betetako bidea dugu aurretik; euskal prentsan beti izan da hala, are gehiago tokiko hedabideen kasuan. Aurrera egin dugu, bai, baina ezin daiteke esan egunero bidean topatzen ditugun hesien altuera txikiagoa denik orain urtebete baino. Kontrakoa, izatekotan.

Horrexegatik, inoiz baino beharrezkoak ditugu hesi horiek gainditzeko indarra ematen diguten bultzadak, handiak eta txikiak. Beharrezkoa dugu komunitatearen babesa, beharrezkoak ditugu irakurleak eta jarraitzaileak, beharrezkoak (eta biziro eskertzekoak) HIRUKA lagunen ekarpenak eta iragarleek aldiro proiektu honen alde ipintzen dituzten aletxoak, baita herritarren ordezkariak diren erakunde publikoen laguntzak ere.

Orain aste bi gogorarazi egin genuen euskaldunok zenbat izerdi bota behar izaten dugun gure hizkuntzak arnasa hartzeko txokoak izan ditzan. Bada, izerdi askoren truke ailegatu gara bizirik ate-joka dugun 2020. urtearen atariraino, eta zuri, irakurle, abentura eder honetan bidelagun izatea eskatzen dizugu. Ikatzairen irudiagaz hasi dugu aldizkari hau, eta antzera amaitu gura dugu, gure motorra elikatzen duen ikatza zarela irudikatuz. ◀



prentsa euskaraz, pentsa euskaraz!



Zu zara giltza!

Egunero abentura ezin ederragoan
murgiltzen gara euskal prentsa egiten dugunok.
Bidaia horretan ezinbesteko lagun zaitugu zu, euskaraz bizi,
euskaraz arnastu, euskaraz pentsatu gura duzun hori.
Izan zaitez gure bidaide, izan zaitez HIRUKALagun!

Abentura honetako kide izateko: administrazioa@hiruka.eus

hiruka

General Optican

DENA
%50
MERKEAGO

EHUko ikaslea edo langilea zara? Edo HIRUKAren bazkide edo HIRUKAlagun?
Bada zuretzat egindako beherapenak balia itzazu!
Sartu eta ikusi.



* Eskaintza hau ezin zaie lotu beste eskaintza edo sustapenei;
EHUren Leioako campusean egindako erosketei bakarrik
dagokie. Bertoko kide direna baieztatu beharko dute ikasleek
eta langileek, Unibertsitatearen agiri ofizial bat aurkeztuz.



General Optica